**KIROLA: EMAKUMEEN SASKIBALOIKO EUSKAL KOPA, ESKORIATZAN /10**

# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2005eko irailaren 16a • V. urtea • 212. zenbakia • DOAN BANATZEKOA



**Goienka2a**

**ZINEMALDIAN, IBARREKO AKTORE ETA ZUZENDARIAK**



**BERGARA**

**Lanean da Matz-Errekaren lantegi berria /4**

**MIREN ELGARRESTA** / ARTZAIN ADITUA

*"Gizarteak beste joera batzuk hartu ditu, baina agian ez da komeni artzain asko egotea"* **/7**

**DEBAGOIENA**

**"Eskoriatzarrei ahotsa ukatu izana" salatu du Aralarrek /4**



MAIDER ARREGI

## Oñati, artisau-txokolatearen hiriburu

Txokolatea protagonista bihurtuko da Oñatin asteburuan. Izan ere, Oñatiko Klaxk Txokolateroen Elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu. Batetik, Artisau Txokolatearen Nazioarteko I. Azoka egingo dute bihar, zapatua, herriko plazan, goizean zehar. Egongo dira mundu osotik etorritako 21 txokolate artisau, Eva Argiñano, Jose Mari Gorrotxategi, Alberto Elortza eta beste hainbat gozogile eta sukaldari. Gaur, bestalde, hitzaldia izango da *Txokolatea, osasunari eta kirolari dagokionean* gaiaren gainean, 18:00etan kultura etxean. Eta, bestalde, domekara arte egongo da zabalik Oñatiko zazpi txokolate enpresen gaineko erakusketa. Gaztetxoenak hasi dira jada txokolarekin disfrutatzen. **/6**

**ASTEKO GAIA: GRIPEAREN AURKAKO KANPAINA**

# Txertoa hartu daiteke 19tik aurrera

Astelehenean, hilak 19, hasiko da Debagoienean gripearen aurkako kanpaina. Egun horretatik eta azaroaren 4ra bitartean, 65 urtetik gorako guztiei eta edozein adinetako gaixo kronikoei txertoa hartzera joatea komeni zaie. Horretarako erraztasun handiak ematen ditu Osakidetzak: herriko beharrei egokitutako ordutegia ipiniko dute, eta ez da bolanterik behar izango txanda hartzeko, nahikoa da dei bat egitea. Horrez gainera, txertoa emango diete historialaren arabera arriskua duten beste batzuei.

Aurtengo birusa iazkoaren oso antzekoa da, eta osasun arduradunek diote ez duela aparteko arazorik sortuko. **/2-3**

## Hainbat ekimen ibarreko herri batzuetan, autorik ez erabiltzea bultzatzeko

Hainbat ekimen antolatu dituzte ibarreko lau herritan jendea animatzeko autorik ez erabiltzera. Hain justu ere, Autorik Gabeko Eguna izendatu dute datorren eguena, hilak 22, Arrasaten, Oñatin, Antzuolan eta Elgetan. Bus zerbitzua edo bizikleta erabiltzea gomendatzen dute udalek, autoaren ordez. Horretaz gain, Elgetako Salbador kalea zirkulazioari itxita egongo da egun horretan. **/6**

**BERGARA**

## Milioi bat euro inguru Hirigune Historikoa txukuntzeko

Astelehenean Bergarako udalbatzak erabakitakoaren arabera, Goenkalea urbanizatuko dute eta eraikin aipagarrienetan eta kaleetan argiteria jarriko dute, milioi bat euro inguruko aurrekontuarekin. Goenkalea kaleko urbanizazioarekin jarraituko dituzte orain Artekalean eta Arruriagan egiten ari diren lanak. **/6**









DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/6 • IRITZIA/8 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELAK/19 • DENBORA-PASA/20 • TELEBISTA/22

# Gripearen txertoa hartzeko garaia da

## Astelehenetik aurrera dei dezakete anbulatoriora 65 urtetik gorakoek eta gaixo kronikoek

LEIRE KORTABARRIA

Osakidetza gaur, egubakoitza, zen aurkeztekoa aurtengo gripearen aurkako kanpaina. Debagoieneko anbulatorioetan, datorren astelehenean, irailak 19, hasten da gripearen aurkako txertaketa garaia, azaroaren 4ra bitartean. 65 urtetik gorakoei eta gaixotasun kronikoak –diabetesa; bihotz, giltzurrun edo gibeleko gaitzak...–, dituzten edozein adinekoei dago zuzenduta kanpaina.

Osasun Sailak eta herrietako osasun arduradunek dei egiten dute gripeari duen garrantzia emateko eta txertoa hartzera joateko. Horretarako, herri bakoitzari dagokion osasun zerbitzuan txanda hartu behar da.

Osasun arduradunek erraztasun guztiak eman nahi dituzte: herri bakoitzaren araberako ordutegia, bolanterik behar ez izatea... Oñatiko arduradunetako batek, Isabel Luengok, dio: "Etortzea ahaztu duen inori etxera deitzen diogu etor dadin". Egunotan, osasun etxe batzuk ikertzen ari ziren aukera bat zen bereziki txertoak ipintzeko langile talde bat ekartzea. Egunotan ziren hori erabakitzekoak.

Herri batzuetan, Arrasaten edo Bergaran kasu, osasun etxeaz gainera, beste leku batzuetan ere ipintzen dituzte txertoak: Arrasaten, zaharren egoitzetan; Bergaran, Osintxun eta Labegaraietan.

Ibarreko osasun arduradunendako, lan handia izaten dira kanpaina horiek: uztailean hasten dira antolatzen. Hala, kanpaina hasi orduko ondo prestatuta daude, batez ere lehenengo egunetarako, orduan joaten da eta jende gehien.



BERRIGARA

Anbulatorioaz gain, edadetuek euren egoitzetan, eguneko zentroetan... har dezakete gripearen aurkako txertoa.

### ERANTZUN BIKAINA

Debagoiendarrek oso ondo erantzuten diote kanpainari. Ibarreko txertaketa tasa altuena Oñatiri dagokio: hala, iaz, kanpaina zuzenduta dagoen populazioaren ia %90 joan zen txertoa hartzera (guztira, 1.850 bat lagun). Eta Aretxabaletako kanpaina arduradunak, Arantxa Landaluzek, honakoa dio: "Oso pozik gaude kanpainak izaten duen erantzunarekin. Aurten ere, jende asko espero dugu, gehiago etortzen direlako urtetik urtera". Bere gomendioa da edadetu guztiek har dezatela, "negua oso ondo pasatzen dute-eta". Gureko edadetuek badakite hori, eta oso kontzientziatuta daude.

Txertaketa tasa horiek kanpainaren hartzaile zuzenei dagozkie, arrisku handieneko populazioari; alegia. Gainerakoek ere,

autoan elkarrekin

www.arrasate-mondragon.org

Bidaiarako automobila beste batekin banatzeko interesa duten **pertsonak elkartzeko zerbitzua**

**Arrasateko datu esanguratsuak:**

| | 2004 | 2005 |
|---|---|---|
| **Autoak** | 10.712 | 10.845 |
| **Ibilgailuak** | 12.128 | 12.279 |
| **Motorizazioa** (ibilgailu pertsonako) | 0,523 | 0,543 |

**Mugitzeko era**

| | Barne mugikortasuna | Eragindako mugikortasuna |
|---|---|---|
| **Norberaren ibilgailua** | %56 | %82 |
| **Oinez / bizikletaz** | %38 | %17 |
| **Garraio publikoa** | %6 | %1 |

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
AGENDA 21
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
IHOBE
ingurumena
Ingurumen Saila

kasu batzuetan, har dezakete. Zentzu horretan, herri bakoitzeko osasun etxeak bere zerbitzu mota erabakitzen du: batzuetan, bakarrik arrisku handiko populazioari ematen diete txertoa; beste batzuetan, gaixo kronikoei ez ezik, familiakoei ere bai; zenbait lekutan, interesa duen edozeini ematen diote. Hori txerto kopuruaren arabera, epidemiaren laztasunaren arabera… neurtzen dute. Izan ere, baliabideak mugatuak dira eta ezin izango litzaioke kanpaina orokor bati aurre egin; mugak ez dira herrialde jakin batekoak, mundu osoko osasun adituen buruhaustea baizik. Horregatik, edadetuez gain, inmunitate sistema ahula dutenei ematen zaie lehentasuna: gaixo kronikoei, baina baita urritasun mota jakin batzuk dituztenei ere. Hala, Debagoieneko osasun arduradunak horien egoitzetara joaten dira txertoa ematera.

Umeak, adibidez, ez daude gripea hartzeko arrisku handieneko populazioan; bai, ordea, kutsatzeko arrisku handienekoan: eurek kutsatzen dute gehien, eurengan birusa oso indartsu dagoelako. Horregatik, umeekin bizi diren edadetuek dute kutsatzeko arrisku oso altua, eta komeni da lehenbailehen txertoa har dezatela.

**GOMENDIO BATZUK**

Urtero, mundu osoko adituek birusaren jatorria ikertu eta zein txerto behar den aurkitzen dute. Hala, urtero birus horri dagokion txerto espezifiko bat prestatu behar da; aurten, adibidez, iazkoaren oso antzekoa erabiltzen ari dira. Birusak mutazioak izaten dituelako, ezinezkoa da %100ean eragiten duen txertoa egitea, baina eraginkortasun maila ia bete-betea izaten da.

Gripea da udazken eta neguko gaixotasun bereizgarria eta oso hedatua, baina oraindik asko dago gaitz horren gainean deskubritzeko eta ikasteko. Hala, ez dago gripea osatzen duen botikarik: egin daitekeen bakarra da ohean egon, ur asko edan eta analgesikoak eta sukarraren aurkako botikak hartu. Antibiotikoak ez dira hartu behar.

Prebentzioa ere oso zaila da txertoa hartu ezean. Hala ere, birusa airearen eta txistu-tanten bidez kutsatzen dela kontuan hartuta, neurri batzuk har daitezke beste batzuk ez kutsatzeko: hala, eztula edo doministiku egitean besteengandik aldendu edo aho eta sudurra estaltzea, eskuak garbitzea eta, ahal dela, gripea hartu badugu, etxean gelditzea.

**PANDEMIARIK EZ**

Gripea datorrela-eta, ez dago kezkatzeko arrazoirik, baldin eta osasun aholku guztiak jarraitzen badira eta, behar izanez gero, txertoa hartzen baldin bada.

Baina gripea menpean hartzeko moduko gaitza bada ere, oraindik izua pizten du bere etorrerak. Hala, aurten, hainbat komunikabidetan esan izan da gripe pandemia zetorrela aurten. Pandemia da mundu osoan oso bizkor hedatzen den epidemia oso larria, eta mende bakoitzean hiru bat kasu gertatzen dira; orain azkeneko pandemia handia 1968an sortu zen, Hong Kongeko Gripea delakoa.

Mediku espezialistak daude mundu osoan gripearen gainean ikertzen, birus berriei eta pandemiei aurrea hartzeko. Bestalde, birusa hegaztietatik etortzen denez, oso garrantzitsua da hegaztien inguruan lan egiten dutenek euren burua babestea eta txertoak hartzea.

*Osasun zerbitzuak erraztasun guztiak ematen ditu: ordutegi egokia, bolante beharrik eza…*

*Nagusiez eta gaixoez gain, defentsa sistema baxua dutenek lehentasuna dute txertatzeko*

## Langileak, lehenak

**Beste inork baino lehenago, gaixoekin lan egiten dutenek hartu behar dute txertoa, Osakidetzako langileek, alegia. Hortaz, bereziki eurei zuzendutako kanpaina egiten du Osakidetzak; aurten, *Zure onerako da, guztion onerako* leloa aukeratu dute. Hala, ibarreko anbulatorioetako langileek hartu dute dagoeneko txertoa, astelehenean hasten delako kanpaina orokorra.**

**Horiez gain, oso komenigarria da edadetuekin lan egiten dutenek ere lehenbailehen hartzea txertoa.**




OSAKIDETZA

**Osakidetzako langileendako kanpaina berezia egiten da.**



**GARBIÑE ETXEBARRIA** / ERIZAINEN ARDURADUNA BERGARAN

# *"Aurtengo birusa ez da apartekoa izango"*

**Bergarako anbulatorioko erizainen koordinatzailea da Garbiñe Etxebarria.**

**Zein birus mota dator?**

Iazkoaren oso antzekoa izango da. Zurrumurru asko entzun dira pandemia datorrela, baina aurten behintzat ez da horrela. Ez da aparteko birusa.

**Iaz epidemia latza izan zela iritzi zion jendeak.**

Ez zen aparteko epidemia izan; espero zena izan zen. Orain bi urtekoak eragin txikia izan zuen, horregatik iazkoak latzagoa ematen zuen. Bestetik, jendeak gripearekin nahasten ditu gripea ez diren beste gauza batzuk: eztula, katarro handia…

**Zergatik izaten dira epidemia batzuk beste batzuk baino gogorragoak?**

Mutazioengatik. Hiru gripe birus dago, eta A eta B delakoak dira komunenak, baina horiek mutazioak izaten dituzte. Hala ere, ez dute osasun arazo larregirik ematen. Epidemiak 8-10 aste irauten du, eta kasu gehien ematen dira lau astetara. Eragin handiagoaren faktoreak dira kutsadura, gero eta edadetu gehiago egotea…

**Prebenitzeko zer egin behar da?**

Txertoa; ez dago besterik. Bestalde, urte osoan dieta garbia jarraitu behar da.

**Txertoa eraginkorra da?**

Bai. Bakar batzuk etortzen dira esaten hala eta guztiz ere gripea hartu dutela, baina normalean txertoari erreakzioa izaten da. Txertoa hartuta, 65 urtetik gorakoek umeek baino gripe gutxiago izaten dituzte. Gainera, txertoak ez du kontraindikaziorik, soilik arrautzari alergikoa izatea edo hartzeko unean sukarrarekin egotea. Haurdunek ginekologoari galdetu behar diote.

**Arrisku-populaziotik kanpo daudenek ere har dezakete txertoa?**

Historia klinikoan arrisku faktorerik ikusten badugu, eman egiten diogu, batez ere, defentsa gutxi dituztenei. Egora ideala izango litzateke jende guztiari ematea, baina ezinezkoa litzateke horrelako kanpaina erraldoi bat egitea.

**Beste gomendiorik?**

Bai: oso garrantzitsua da hegaztiekin lan egiten dutenek txertoa hartzea. Izan ere, gripea, jatorrian, hegaztietatik dator.

*"Oso garrantzitsua da hegaztiekin lan egiten dutenek ere txertoa har dezatela"*

Irailetik aurrera
7 eta 9 urte
arteko umeei

Ortodontzia azterketa DOAN
M. Astiazaran Etxebarria
H. Solozabal Saez
Mediku estomatologoak
Iparragirre 12
943 76 27 95 BERGARA

NUEVA IMAGEN
IKASKETA ZENTROA
ILE APAINTZE-ESTETIKA
A.N.C.E.P.E.-REN AKADEMIA HOMOLOGATUA
MATRIKULA
EPEA
ZABALIK
Maila goreneko
diplomatura
GASTEIZ
Santiago etorbidea 25
(autobus geltokiaren ondoan)
945 27 91 33

Mazda3. Behar duzuna badaukazu?

Bikar
MENDIOLA
San Andres 10 D · Tel.: 943 77 21 00 · ARRASATE
mazda




GOIENKARIA

San Juan auzoko pabilioi berriak 2.000 metro koadro ditu; lanerako eta biltegirako espazio gehiago izango da.

# Abuztuaren amaiera ezkero lanean da Matz-Errekaren lantegi berria

*Bergarako pabilioian oinezkoendako ate automatikoak egiten dituzte*

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Matz-Erreka Antzuolako enpresak pabilioi berria ireki du Bergarako San Juan auzoan. Oinezkoendako ate automatikoen saila dago bertan, eta abuztuaren amaiera ezkero abian da lantegia. Alor horretan 28 langilek dihardute.**

Abuztuaren amaiera ezkero lanean dira Matz-Errekak Bergarako San Juan auzoan zabaldu duen lantegi berrian.

Oinezkoendako ate automatikoen fabrikazio prozesu osoa egiteko tresna eta makineria guztiak uztailean eraman zituzten 2.000 metro koadroko pabilioira; eta lantegi berrian, diseinu, muntaia eta merkaturatze lanak egingo dituzte.

Guztira bi milioi euroko inbertsioa egin dute, eta diru kopuru handiena ekoizpen makineria berritzeko eta komunikazio azpiegiturak hobetzeko erabili dute.

**ESPAZIO HANDIAGOA**

Lantegia Bergarara aldatzearen arrazoi nagusia lanerako eta biltegirako espazio handiagoaren beharra izan da; baita azken urteotako hazkundea ere.

*Ate automatikoen saila da enpresaren fakturazioan gorakada handiena izan duena*

Antzuolako enpresak 2004-2008 plan estrategikoan hazkundea aurreikusi du bere Matz-Errekako lau atalendako; batez ere, automatismoen eta ate automatikoen sailetan.

Bergarara ekarri duten atala Espainiako liderren artean dago bere sektorean. Sail hori da, hain zuzen ere, enpresako fakturazioan gorakada handiena izan duena. 1999a ezkero urteanurtean %30-40 egin du gora eta aurtengoa iazko igoerarekin alderatuz %50etik gora izango da. Igoera honen arrazoia da langileek bezeroei zerbitzu pertsonalizatua emateko egiten duten ahalegina. Bestalde, produktua berritzeak ere izan du zeresanik. Berritze horretan *Universal System* da euren eskaintzako produktu arrakastatsuena.

# "Eskoriatzarrei ahotsa ukatu izana" salatu du Aralarrek

*Autobideak kaltetuek ezin izan dute iritzia eman*

GOIENKARIA

**Gipuzkoako Batzar Nagusietara eroan nahi zuen Aralarrek Eskoriatzako lurjabeen batzordearen iritzia. EAJ-EAk eta PPk, ordea, ez dute proposamena onartu. Hori salatu du Aralarrek.**

Eibar-Gasteiz autobidearen Arlaban-Eskoriatza zatiaren eraikuntza lanak direla-eta, Eskoriatzako baserritar kaltetuen batzordeko ordezkariak Gipuzkoako Batzar Nagusietara bertaratzeko eskaria egin zuen Aralarrek, Rebeka Ubera batzarkidearen eskutik. Eskaera, hala ere, ez zuten onartu batzarkideek; izan ere, EAJ-EAk eta PPk proposamenaren aurka bozkatu zuten, eta PSE-EE eta EB abstenitu egin ziren. Aralarko ordezkariak bakarrik eman zuen aldeko botoa.

Aralarko ibarreko zinegotziek salatu egin dute Gipuzkoako Batzar Nagusiek "herritarrei beraien iritziak aditzera emateko aukera ukatu izana". Aralarren ustez, "herritarrek erakundeen aurrean entzunak eta kontuan hartuak izateko eskubidea dute".

## DEBAGOIENEAN LABUR

### Ia hilabete gose greban eman ondoren, zapatuan eten zuen Zuhaitz Errastik

Nantesko espetxean bakartua eta isolatua duten Zuhaitz Errasti preso aretxabaletarrak joan zen zapatuan laga zion gose grebari. Abuztuaren 15a ezkero zeramatzan gose greban eta bere osasun egoera larria zen. Hori horrela, presoa ospitalera eroateko asmoa adierazi zion medikuak espetxeko zuzendariari. Egoeraz jabetuta medikuak hitz eman zion Zuhaitz Errastiri 15 egunean kenduko ziotela isolamendua.

### Mikel Garaiondo preso bergararra aske utzi dute aurrez bermea ordainduta

Martitzen arratsaldean aske utzi zuten, fidantzapean, Mikel Garaiondo preso osintxuarra. Garaiondo 2003ko azaroaren 18an atxilotu zuten Eibarren, bere garaian poliziak Tarbesen atzemandako paperetan oinarrituta. Garaiondori hasierako ongi-etorria egin zioten eguazten goizaldean Eibarren eta Osintxun.

### Presoen gaineko hitzaldi bana antolatu ditu espetxe-pastoralak, Arrasaten eta Oñatin

Espetxe-pastoralak presoen gaineko bi hitzaldi antolatu ditu datorren asterako. Astelehenean, hilak 19, Patxi Mugartza apaizak jardungo du Arrasateko San Andres parrokian, 18:00etan. Eguaztenean, ostera, Luis Miguel Medina Martuteneko espetxeko kapilauak egingo du berba Oñatiko parrokiako lokaletan, 18:00etan.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE HUMANIDADES Y CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN

MASTER ETA ADITU TITULUA

Informazio eta Komunikazioaren Teknologiak, prestakuntzari aplikatuta

Helburua: profesionalak prestatzea, ikastetxeetan lan egiterakoan gai izan daitezen informazioa eta komunikazioaren teknologiak era pedagogikoan erabiltzeko.

Nori zuzendua: hezkuntza-zientziak, psikologia, pedagogia, psikopedagogia, irakasle, informatika, soziologia, Humanitate-Enpresa arloetako unibertsitate tituludunentzat

Metodologia: masterra, auto-formazioan eta tele-formazioan oinarritzen da: masterrean, eskolen %15 bertaratu gabekoak izango dira; gainerakoak, Internet bidezkoak. Azken honetan, ikasleek tutoretza etengabe izango dute.

Eusko Jaurlaritzak homologatua

Dorleta z/g – 20540 ESKORIATZA
Tel.: 943 71 41 57

www.huhezi.edu

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE HUMANIDADES Y CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN

PRESTAKUNTZA PEDAGOGIKOA IKASTAROA

Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta LHn derrigorrezko eskolak emateko

Helburua: bigarren hezkuntzan lan egin nahi duten lizentziadunei, didaktika eta psikopedagogia eremuetan oinarrizko prestakuntza ematea.

Beharrezkoa didaktikan Espezializazio titulua lortzeko, eta ezinbestekoa Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan eskolak emateko.

Eusko Jaurlaritzak homologatua

Dorleta z/g – 20540 ESKORIATZA
Tel.: 943 71 41 57

www.huhezi.edu

Aretz
taberna

"Oilasko erreak eta paellak eramateko"

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

# Ibarreko euskaltegi guztiek hasi dute matrikulazio kanpaina

*Udal Euskaltegiek ikasleen garrantzia azpimarratu dute; AEK-koek konpromisoarena*

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Ikasturtea hasi berri den honetan, Debagoieneko Udal Euskaltegiek kanpainari ekin diote. Bestalde, AEK-k ere bere euskaltegietan izena emateko dei egin du. Matrikulazio epea zabalik dago ibarreko euskaltegi guztietan.**

Debagoieneko Udal Euskaltegiek 2005-2006 ikasturteko matrikulazio kanpaina aurkeztu dute. Kanpaina honen berezitasuna da, ikasleek eurek animatzen dituztela debagoiendarrak euskara ikastera.

*Udal Euskaltegira goaz. Bazatoz gurekin?* da ikasturte honetan publizitate kanpainarako aukeratu duten leloa. Ikasleek eurek euren esperientzietatik gonbidatzen dute jendea Udal Euskaltegietan izena ematera. "Udal Euskaltegiak pertsonek osatzen dituzte: adin, sexu, eta behar ezberdinak dituzten pertsonek. Horregatik, protagonistei eman diegu ahotsa aurtengo kanpainan. Pertsonak dira Udal Euskaltegientzat garrantzitsuena, zaindu egiten ditugu eta gogo handiz etortzen dira gugana", esan zuten euskaltegietako arduradunek aurkezpenean.

Zera gaineratu zuten: "Unibertso zabala da Udal Euskaltegien sarea eta horren adibide dira kanpainako irudian agertzen diren ikasleak: gazteak, erretiratuak, ikasleak, langabeak, administrazioko langileak... Denok dugu tokia Udal Euskaltegian".

Mezua zabaltzeko kartelak, esku-orriak, Internet, prentsa idatzia eta irratia erabili dituzte.




GOIENKARIA

Udal Euskaltegietan mota eta adin askotariko ikasleak daudela adierazi nahi izan dute kanpaina honetan.

**IAZ 835 IKASLE IBARREAN**

Arrasaten, Bergaran, Aretxabaletan eta Eskoriatzan daude Udal Euskaltegien sareko euskaltegiak Debagoienean. Kanpainaren aurkezpen ekitaldian, pasa den ikasturteko datuak eman zituzten aditzera. 2004-2005 ikasturtean, Arrasateko, Bergarako, Aretxabaletako eta Eskoriatzako Udal Euskaltegietan ia 700 ikasle matrikulatu ziren; %64 emakumeak eta %36 gizonezkoak. Horietatik %7,6 langabeak eta % 5,7 etorkinak. Ikasleen batez besteko adina, berriz, 38 urte izan zen. Eta, hain zuzen ere, 74 taldetan banatuta jardun zuten lanean.

Bestalde, Oñatik ere badu Udal Euskaltegia, eta matrikulazio epea irailaren 20ra arte dute zabalik. Joan den ikasturtean 135 ikaslek jardun zuten bertan euskara ikasten, 13 taldetan. Ibarrean bezalaxe Oñatin bertan ere emakumeen kopurua gizonezkoena baino handiagoa izan zen; eta, horrez gain, oso langabe gutxik eman zuten izena.

**MATRIKULA EPEA, ZABALIK**

Ibarreko Udal Euskaltegietan matrikula epea zabalik dago oraindik, eta euskaltegi bakoitzeko bulegoetan jaso daiteke xehetasunen berri. Arrasaten, Arimazubi plazan; Bergaran, Zabalotegin; Aretxabaletan, Nafarroa kalean; Eskoriatzan, Intxaurtxueta kalean; eta Oñatin, Errekalden.

Bulegoetan ez ezik, informazioa *www.udaleuskaltegiak.net* helbidean ere eskura daiteke. Webgune horren bitartez, urteko matrikula baten zozketa egingo dute irailean, Gipuzkoan matrikulatutako ikasle guztien artean.

Udal Euskaltegiek 24 urteko esperientzia dute euskara irakasten eta guztira 43 eskola daude euren sarearen baitan. Ikasle bakoitzaren beharren arabera dagokion mailako eskolak emango dituzte, eta ordutegiak ere ikasleen beharretara ahalik eta egokien moldatzen saiatzen dira.

Ikasleek bekak eta dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte udalen eskutik; eta tituluak lortzeko aukera ere izango dute: HABEren diplomak, adibidez.

## AEKren bidaian, helmuga euskara da

***Helmuga euskara da* leloa aukeratu du AEK-k, eta euskara ikastea "bidaiarik ederrena izan daitekeela" adierazi nahi dute horrekin.**

**Helduek euskara ikasi eta dakitenek erabili egin behar dutela esan dute, eta horretarako konpromisoa hartu behar dela.**

**AEK-k mota askotako eskolak eskaintzen ditu, eta aurten, berrikuntza modura, idazkuntza lantegia *on-line* eskainiko dute.**

**AEK-ko ikastaroren batean izena eman nahi duenak Bergarako edo Arrasateko bulegoetara jo dezake.**

LASAGABASTER
LASAGABASTER
www.lasagabaster.com
Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

ANTZUOLA

## ‘Probau deigun kotxe barik!’ leloa erabiliko dute irailaren 22an

Autorik Gabeko Eguna antolatu du Udalak herriko beste hainbat elkarte eta talderen laguntzarekin, hilaren 22rako, eguena. *Probau deigun kotxe barik!* leloa aukeratu dute gure herrian egun horretarako.

Batetik, Kalebarren, Herriko Plaza eta Buztinzuri itxi egingo dituzte trafikoarendako; bestetik, autobus zerbitzu jarraitua ipiniko dute, herriko lantegietan diharduten bergararrendako, bereziki. Ordutegiak etxe guztietan banatu eta herrian kartel informatiboak jarriko dituzte. /AINTZANE IRIZAR



EDU MENDIBIL

OÑATI

## Txokolate festa egingo dute zapatu goizean Oñatiko plazan

Klaxk Txokolateroen Elkarteak antolatu du asteburu honetarako txokolate festa. Mexikotik, Argentinatik, Ourensetik, Mendarotik, Errioxatik, Arrasatetik eta Valentziatik etorriko dira, besteak beste, txokolate artisauak zapatu goizean Oñatiko plazara: mundu osoko 21 partaide. Txokolatea eta bonboiak egongo dira dastatzeko, besteak beste, eta baita txokolate kakaoarekin egindako kremak eta ukenduak ere. Horrez gain, hainbat gozogilek eta sukaldarik txokolatearekin egindako errezetak erakutsiko dituzte. Maiatzaren bukaeran jaio zen, zeremonia eta guzti, Klaxk Txokolateroen Elkartea, Anton Azpiazu buru duela. Hainbat herritar dira elkarteko kofrade. Uztailean, Ohorezko Kofrade izendatu zuten Miguel de la Quadra Salcedo. /O.E.

ARETXABALETA

## Kilometroak jaiak herrian eragingo dituen aldaketen berri emango dute

Kilometroak jaiak hainbat aldaketa eragingo ditu Aretxabaletako kaleetan urriaren 2an. Hori guztia aztertzen jardun du batzorde - batek azken hilabeteotan, eta datorren astean horren berri emango du Udalak bando baten bitartez.

Kale batzuk itxi egingo dituzte zirkulazioarendako: Bizkaia kalea eta Araba ibilbideko zati bat, esaterako. Beste batzuei, ostera, noranzkoa aldatuko diete; Errekabarreni, Andramariri eta Zaraia osteko kaleari. Gainera, lur azpiko garajeak dituztenei autoak bertan gordetzeko eskatuko diete. /M.A.

ARAMAIO

## Bihar zortzi, Aitor Aranaren omenezko mendi ibilaldia egingo dute

IX. edizioa du aurten Aitor Arana Mendi Ibilaldiak. Seizazpi orduko ibilbidea prestatu du Orixol Mendi Elkarteak: Ibarra, Tellamendi, Izpizte, Zabalaundi, Oleta, Marixeka, Orixol eta Ibarra. Edozelan ere, zirkuitua edozein momentutan uzteko aukera izango dela ziurtatu digute. 08:00etan aterako dira mendizaleak Ibarratik. Ibilaldian parte hartu nahi duenak egun berean apurtxo bat lehenago eman beharko du izena.

Ibilaldian hiru hornidura-zona izango dira, eta bukatzean, dutxa hartzeko aukera, kiroldegian. /U.M.

ESKORIATZA

## Etxebizitza publikorako dagoen eskaera aztertu du Udalak

Etxebizitza publikorako eskaera egingo lukeen eskoriatzarren profila osatu du Udalak inkesta baten bitartez. Herrian egingo den etxebizitza publikorako eskaintza antolatzeko jaso ditu datuak, eta horien ondorioen berri eman du oraingo astean.

Azterketaren arabera, etxebizitza berriarengatik 156.000 euro ordainduko lukete interesatuek. Horrez gain, etxebizitza berria lehen eskukoa izatea eta jabetzan hartzea da galdetutako gehienen nahia. Udalak gai hori lantzen jarraituko du. /J.B.

ARRASATE

## Mugikortasun Astea egingo dute gaurtik datorren eguenera arte

Ikastaroak, urbanoan doan ibiltzeko bonuak, hitzaldia… Denetarik antolatu dute Mugikortasun Astea ospatzeko. Esaterako, gaur eta datorren martitzenean, liburuxka bat banatuko dute gidarien artean. Modu efiziente eta ekonomikoan gidatzeko aholkuak idatzi dituzte liburu horretan: kontsumo txikiagoarekin, kutsadura txikiagoa sortuz… Gai bera landuko dute bihar goizean RAC elkarteko kideek. Izan ere, ikastaroa egingo dute Udalak gonbidatutako 20 lagunek, tartean, autoeskoletako gidariek, taxilariek eta Agenda 21eko ordezkariek. Horren harira, hitzarmena sinatuko dute Arrasateko autoeskolekin; hala, biharko ikastaroan ikasitakoaren xehetasunak autoeskoletako ikasleei transmititzen lagunduko dute autoeskoletako irakasleek.

Era berean, aholku horiek bideo baten bitartez helaraziko dizkie gainerako herritarrei.

**MUGIKORTASUN PLANA**

Eta etzi, domeka, Arrasateko ikasleek dute hitzordua Mugikortasun Astearekin, 11:00etan ibilaldia egingo dute-eta, bizikletaz.

Datorren asteari begira, berriz, astelehenean Mugikortasun Plana aurkeztuko dute, goizean zinegotziei eta 19:00etan, jendaurrean. Bestelakoen artean, Arrasatek izango duen bidegorri azpiegitura eta zirkulazioarekin eta autoen aparkalekuekin lotutako etorkizuneko arauak landu dituzte plan horretan. Bukatzeko, besteak beste, hilaren 22an Autorik Gabeko Eguna egingo dute/U.M.

**Zertzelada**

**Autorik Gabeko Egunean Garibai eta Biteri kaleak itxi egingo dituzte ibilgailuendako; zamalanak bakarrik egin ahal izango dira**

BERGARA

## Milioi bat euro inguru inbertituko da Hirigune Historikoa txukuntzeko

Astelehenean udalbatzak erabakitakoaren arabera, Goenkalea urbanizatuko dute eta eraikin aipagarrienetan eta kaleetan argiteria jarriko dute, milioi bat euro inguruko aurrekontuarekin. Goenkaleko urbanizazioa orain Artekalen eta Arruriagan egiten ari diren lanen jarraipena izango da. Iñaki Aspiazu arkitektoak egindako proiektua da, eta Artekalen eta Arruriagan azaroan bukatuko dituzte lanak.

Hango dendari eta bizilagunak haserre daude: “Hasieran agindu zigutena ez dute bete. Kalte dezente jaso ditugu lanak hasi zirenetik”. Arruriagan eta Artekalen trafikoa etenda dago apirila ezkero. /E.M.



E.M.

**Apirila ezkero ari dira Arruriagan eta Artekalen lanean.**

ELGETA

## Sagardo Eguna bihar, zapatua, gaztetxeak antolatuta

Sagardo Eguna antolatu dute biharko, zapatua, gaztetxekoek. 18:00etan zabalduko dituzte kupelak, zazpi guztira, herriko hainbat txokotan eta ordu berean hasiko da patata tortilla lehiaketa ere. Ondoren, dantza saioa izango da plazan eta baita afaria ere, sagardotegiko menuarekin. Giroa alaitzen Elorrioko trikitilariek jardungo dute. Eguna amaitzeko, rock kontzertua izango da gaztetxean, 00:00etan, Sex Tysexerf, Radio Wings eta Argan Boys taldeekin. /I.A.

LEINTZ GATZAGA

## Euskal Bizikletari baietza eman dio Dorletako Ama ziklismo taldeak

Gura baino gorabehera gehiago izan badituzte ere, azkenean konfirmatu dute datorren urtean Gatzagan amaituko dutela Euskal Bizikletako etapa bat, eta hurrengo egunekoa hasi.

Pro Tourrek kalte egin die Euskal Bizikletari eta halako itzuli txikiei, eta Dorletako Amakoek entzun zutenean ETBk ez zuela lasterketa telebistan eskainiko, gatzagarrek atzera egin zuten. Orain, baina, badirudi gauzak bere onera itzuli direla, eta proba hori Gatzagara ekarriko dutela. /X.U.



O.E.

# Miren Elgarresta

ARTZAIN MUNDUA FUNDAZIOKO KOORDINATZAILEA

## “Gizarteak beste joera batzuk hartu ditu, baina agian ez da komeni artzain asko egotea”

ARTZAINTZA ETA GARAPEN IRAUNKORRA

**“Artzaintza da garapen iraunkorraren adibiderik garbiena: ingurumena nola zaintzen duten eta milaka urtean animalia berek emandako paisaiak eta produktuak ikusi behar dira”**

MUNDUKO ARTZAINEN III. TOPAKETA

**“Lau kontinentetako artzainak etorriko dira Oñatira eta hainbat gairen inguruan hitz egingo dute; aurrekoak baino helduagoa da topaketa, eta gaiak hobeto aukeratu dira”**

Munduko Artzainen III. Topagunea egingo dute Oñatin datorren astean. Eguaztenetik zapatura, euren kezkak eta euren esperientziak izango dituzte esateko eta trukatzeko mundu osotik etorriko diren artzainek.

OIHANA ELORTZA

**Zertan ezberdinduko da topaketa hau aurreko bietatik? Zein nobedade izango ditu?**

Lan egiteko denbora luzeagoa izan dugu oraingoan, bi urte. Azken sei hilabeteetan gabiltza harremanetan artzainekin, harreman estua dugu, inoiz baino gehiago ezagutzen ditugu. Bestetik, bi urteko epea ematen dute kongresuaren kontzeptua sakonagoa izateko eta baita gaiak hobeto aukeratzeko ere. Aurrekoak baino topaketa helduagoa izango da.

**Zein gai izango dituzte hizpide?**

Hainbat gai, horietako batzuk, gainera, bitxiak, batez ere artzain munduan ez daudenendako.

**Zein gai bitxi, adibidez?**

Adibidez, artzainek elkarren artean komunikatzeko erabiltzen dituzten bideak. Txistua da bide horietako bat, esaterako. Hala ere, denek ez dute berdin egiten txistu. Euskal Herriko artzainek artzainaren eta txakurraren artean aginduak trukatzeko egiten dute txistu. Kanariar Uharteetan, aldiz, Gomera uhartean zehazki, eskola bat eraiki dute txistu egiten ikasteko. Duela 15 bat urtetik hona dago zabalik eskola, eta artzainen seme-alabei nahiz interesa duen edonori erakusten diete txistuka elkarren artean nola komunikatu, baina esaldi luzeak eginez. Euskal Herriko artzainek hitz soilak adierazten dituzte txistuarekin: “joan”, “ezkerretara”, “eseri”, “etorri” eta antzerakoak. Haiek, ordea, “zabaldu atea” esateko gai dira.

Jorratuko duten beste gaien artean bat da, adibidez, artzainen nomada izaerak produkzioarekin izan duen lotura.

**Nondik etorriko dira artzainak?**

Saiatu gara bost kontinenteetako ordezkariak ekartzen, baina azkenean Zeelanda Berritik ez da posible izan inor etortzea. Asiatik, adibidez, Iran eta Pakistan artean dagoen Baltistan lur eremu zabaletik etorriko dira artzainak. Afrikako ordezkariak Burkina Fasotik datoz. Laponiako artzaina, berriz, artzain berezia da; Samien legebiltzarreko presidente ohia da hura. Euskal Herria ezagutzen ei du, baina hiriburuak soilik, eta badu gogoa hemengo landa eremua ezagutzeko. Kaliforniatik bi etorriko dira eta San Frantziskotik bat. Haiez gain, Serbiatik, Bulgariatik, Greziatik eta Korsikatik ere etorriko dira, adibidez. Espainiatik ere asko datoz eta Euskal Herritik ere bai.

**Erramun Martikorenak kantatzeari utzi ziola jakin genuen, baina salbuespena egingo ei du Arantzazun.**

Hura ere artzaina da eta artzain moduan dator hona, baina kantatzeko eskaini zen, eta pozik hartu dugu eskaintza. Artzainak kulturari oso lotuta egon dira, artzain askok abesten dute, eta artzainen eta kulturaren arteko harremana ere ikusiko da munduko topaketa honetan.

**Denak nagusiak eta gizonezkoak?**

Ez. Urkiolatik, adibidez, emakume artzain bat dator, gaztea, eta Oiartzundik mutil gazte bat.

**Egia da behera doala sektorea?**

Azken urte hauetan dezente zabaldu da hori, eta ziurrenez egia da. Azken 50 urte hauetan gizarteak beste joera batzuk hartu ditu, baina azken zortzi urteotan artzain eskolak izan duen garrantzia eta bertan izena emateko dauden eskabide kopuru altua ikusita, ikusten da oraindik indarra baduela. Ez dugu espero 10 urte barru artzain kopurua izugarria izatea, baina datozen 30 urteotan gaur dagoen artzain kopurua egongo dela pentsa dezakegu. Gainera, agian ez da ona izango artzain kopuru izugarria egotea.

**Zergatik ez?**

Izan ere, lursail aldetik, Euskal Herria herri txikia da eta industriak indar handia du. Lur gozoenak, onenak, industriak hartzen ditu, ekonomia aldetik sektore indartsuagoa delako. Artzaintzak beti erabili duen lursaila mendiko lurra izan da eta ingurumenarekin lotutako artzaintzak bere espazioa behar du. Ezin da sektore masifikatua izan, esentzia galduko lukeelako.

**Beste herrietan ere gutxi dira?**

Ez, beste lurralde askotan artzaintza sektore masifikatua da. Iranen, adibidez, milioi bat artzain daude; Baltistanen, hiru milioi. Oso ekonomia txikia da gurearekin konparatuta, artaldeak txikiagoak dituzte, bospasei behi edo 10-20 ardi inguru. Ezin dira konparatu bi sektoreak, bi ekonomiak eta bi gizarteak.

**Ze arazo ditu gaur egun artzainak?**

Artzain profesionalak ondo ezagutzen du bere lanbidea. Badaki eguraldiak asko baldintzatzen duela produkzioan eta diru iturrietan. Naturarekin lan egitea ez da erraza, hark agintzen duelako, eta hori izan daiteke oztopo bat. Sistema ekonomikoa nahiko gogorra da aurrera egiteko eta moldatu behar da bai ekonomiaren baita gizartearen aginduetara egokitzen.

**Eta artzaina izan nahi duen batek?**

Artzain izan gura duen batek bere artaldearendako behar duen besteko lursaila aurkitzea. Jabegoa beste esku batzuetan izaten da, normalean, eta espekulazioa dela eta, izugarri garestiak izaten dira lursailak. Normalean ardiak gordetzeko etxea egiteko adinako lursaila erosten dute eta gero errentan hartzen dute ardiendako behar duten lursaila.

**Zer heziketa hartu behar du artzainak bizirauteko?**

Artzainak erakutsi du baduela gaitasuna gizartearen abiadura azkarrera egokitzeko. Heziketaren beharra zutela sumatu zuten, eskatu egin zuten eta ikasi egin dute. Orain, gizarteak ere sentitu behar du artzainengandik zer ikasia baduela, eta ikasi egin behar duela.

**Zer ikasi behar du gizarteak artzainengandik?**

Gaur egun, denok gara garapen iraunkorraren aldekoak. Baina nola egiten da hori? Euskal Herrian horren adibiderik garbiena artzaintzak egiten duena da. haiek ingurumena nola zaintzen duten ikusita eta animaliak 4.000-5.000 urte hauetan inguru berean ibiltzeak eman diguten paisaiak eta produktuak ikustea garapen iraunkorraren adibide garbia da.

**Zein izan da emakumearen tokia artzaintzan?**

Lanak ondo bereiztuta egon dira mendez mende. Gizonaren irudia zelaietan dago, ardiekin, txakurrarekin eta makilarekin. Emakumea, berriz, ezkutuan, etxeko lanetan, horien artean gazta egiten. Baina gure gizartean eta merkatuan azken 20 urte hauetan gaztak hartu duen prestigioarekin batera atera da emakumearen lana argitara. Gazta egiten, garbitzen eta saltzen ibili da, gehienbat, etxeko administrazioaren ardura hark zuelako. Gaztak prestigioa hartu ahala ikusi da emakume artzainaren aurpegia.

**Zenbat ikasle daude Gomiztegiko artzain eskolan ikasturte berrian?**

18; horietako bat, gainera, behi zale bat. Gazta egiten ikastera etorri da eta ardiak ezagutzera. Lehentasuna hemengo eskabideek dute eta urtero gordetzen dira toki batzuk kanpokoendako. Txiletik hiru etorri dira eta Kataluniatik ere etorri dira.

**Topaketekin batera, hurrengo domekan egingo dute Oñatin bertan Artzain Txakurren Nazioarteko Txapelketa. Osasuntsu dago?**

Duela 50 urte hasi ziren antolatzen eta aurtengoa 46. txapelketa izango da. Gero eta jende gutxiago etortzen ei da eta agian beste zerbait eskaini beharko luke, ezberdina dena, baina aztertu egin beharko da.

**Bukatzeko, Juan Mari Atutxa da Artzain Munduko presidentea. Denok ezagutzen dugun Juan Mari Atutxa?**

Bai, hasieratik aukeratu zuten. Diputatu izan zenean Nekazaritza diputatua izan zen eta artzaintzari bultzada emateko prest zegoela erakutsi zuen. Baserriko semea da hura ere, eta hasiera-hasieratik aukeratu zuten presidente.

# Gutunak

## Urdaileko mina

Urdaileko minez itzuli naiz *Cocidito madrileño* dastatzen egon ondoren. Bikarbonatoa hartu eta ohera sartzea edo paper zurira botaka egitea pentsatzen egon ondoren bigarrena egitea erabaki dut.

Ni oso antzerki-zale naiz eta ez zait ezer kostatzen antzerki obra bat ikustera joatea edonora bailaran, nahiz Durangora, Elorriora... Sarri ikusi dut antzokia erdi hutsik edo erdi beteta, nire ustez, primerako obrak eta aktore bikainak izan arren. Kaskarrak ere hainbat tragatu ditut, baina gonbito-larria obra honek sortu dit. Zergatik ote? Lapikoko on bat sukalderatzeko lehengai taxuzkoak eta sukaldari taxuzkoak behar dira eta nire uste apalean obra honetan biak iruditu zaizkit hala-moduzkoak, bai gidoia eta bai aktoreak orokorrean. Iruzurra, hitz batean esanda.

Lastima, gutxitan egoten den publikoak, publizitateak bultzatuta, antzezlan on bat horrelakoa dela sinistu badu. Lastima benetako antzerki taldeek publizitaterako dirurik ez izatea. Lastima medioen menpe bizitzea.

Dena den, aupa antzerkia, eta aupa Elgetako Kafe Antzokia, eskaintzen ari den zerbitzuagatik. Zoragarria, datorren 14rako programatuta dagoena. Yllana taldea. Han ikusiko dugu elkar.

J. E. ARREGI
Bergara

## Anoeta ostian militarrak juan ziralakuan...

Norberan etxian nahikua leku ez eta gurera etorri dira oinguan pintoriak. *Gora ETA (m)* ipintzen dau lehenengo margo lanian, bigarrenian *Traidoreak eta Gora ETA (m)*, hirugarrenian *Putreak!* eta laugarrenian *Borrokarik gabe garaipenik ez*. Gabian etorritako artistak koadruak gure etxian ahaztuta juan dira eta gu margolanengaittik eskerrak emon ezinda.

Jakingo ete dabe maisu lan honen egilliak koadrotan ipinitako (m) horren barri. Militarrek askatutako herrixa ete da gure margolarixek gura dabena? Militarrek askatutako herrixan egongo ete da bakoitzak gura dogun moduan pentsatzeko aukeraik? Anoeta eta gero, militarren burrukia da garaipenerako bidia?

Zergaittik gara traidoriak? Militarrak ez garalako. Ala Euskal Herrixan independentzia gura dogulako? Ala politika ezkertzale eta aurrerakoiak bultzatzen dihardugulako? Ala presuak eta ihesian darenak etxian gura dittugulako? Ala bide militarrari intsumisioa egin dotsagulako? Ala euskaraz bizi dan herrixa gura dogulako? Ala autogestionatzen diran elkarguniak babesten dittugulako? Ala AHT edo Super portuetan biharrian gauza txikitxuauetan sinisten dogulako?

Galdera larregi gaban iluntasunian pintoriak bialdu dittuenekin eta pintore ibillitakuekin konpontzeko. Edarra bultzadia emoten dotsazue Elgetan ezkerreko eta abertzaliak garan danok alkarrekin egin bihar giñuken bidiari.

Hurrenguan lanak ondo egin. Margolari ona danak jakin badaki margotu aurretik hautsak kendu bihar dirala. Eskertuko gontzueke hurrenguan hautsak kenduta lagatzia.

ELGETAKO ARALAR
Elgeta

## Eskerrik asko

Idatzi honen bitartez, gure eskerrik beroenak luzatu nahi genizkieke Aita Mennik Uribe auzoan duen Eguneko Zentroan lan egiten duten langile guztiei, gure aitarekiko izan duten jarrera goxoa eta maitekorragatik. Baita ere Maite eta Antoniori, gure aita Eguneko Zentroan egon den bitartean, egunero autobusez eramateaz gain, berari eman dioten maitasun eta begiruneagatik.

Mila esker denagatik eta segi horrela lan horretan.

SEBASTIAN GALLASTEGIREN FAMILIA
Arrasate

## PNVren bidea

Uda honetan hainbat gertakari izan dira. Imanolen heriotza eta honen aurrean hainbat alderdik izan duten jarrera apala. Imanolen omenaldian ertzainek erakutsitako jarrera eta ondoren izandako atxiloketen inguruan eginiko manipulazioa. Zuhaitz Errasti atxabaltarraren atxiloketa eta ondoren eraman duen borrokaldia. Donostiako manifan ertzainek izandako jarrera eta hainbat alderdi eta komunikabidek kontenedore bati zaurituei baino inportantzia handiagoa eman izana...

Argi ikusi dut, bai, PNV eta bere inguruan mugitzen diren alderdiek lehen mailako eta bigarren mailako euskal herritarrak bereizten dituztela. *Lehen mailakoek* egiten duten guztia proportzionatua da eta beraiei egiten zaiena kondenagarria. *Bigarren mailakoak*, ordea, gaiztoak dira, biolentoak, eta beraiek egiten dutena guztiz kondenagarria da. Beraien aurka egiten den guztia proportzionatua. Hori da logika.

Imanolen heriotza beste edozein istripurekin alderatu zuten. Bere herritik alde egitera behartu zuen egoerari muzin eginez edo *ahaztuz*. Gudari honen omenaldian ertzainek izan zuten jarrera desproportzionatu eta basatia babestu eta hauek esandako gezur guztiak egia bihurtu zituzten. Gogora ekarri nahi dut pistolak atera zituztela, eta baita burdinazko barra batzuk ere, omenaldira gerturatu zirenen aurka egiteko.

Zaurituak, atxiloketa bortitzak... ikusi nituen Donostian. Baina PNVko jauntxoek nahiago izan zuten su hartu zuten bi kontenedore haietaz gogoratzea. Zaurituak mespretxatuz, irainduz, gutxietsiz. Atxilotuen errugabetasun presuntzioa kontuan hartu gabe, Imanolen omenaldian gertatu zen bezala.

Guztien errepaso bat egin nahi izan dut, baina ez nahi beste sakonduta. Asko baitago kontatzeko, albistegi eta prentsan agertu ez den guztia kontatzeko dago. Asteleheneko Atxabaltako plenoan ikusi eta entzun nuenak nire kezka areagotu du.

Hasteko, gogora ekarri nahi dut Zuhaitzen egoera. Atxilotu zutenetik Estatu Frantsesaren bortizkeria ezagutu behar izan du: inkomunikazioa, isolamendua, bakardadea... Hori guztia salatzeko gose grebari ekin zion, egoera fisiko delikatura eraman duen arte. Bere eskakizunak 25 egun geroago onartu ostean, gose greba uztea erabaki zuen. Isolamendutik atera eta beste preso politiko bat dagoen espetxe batera eramatea exijitzen zuen eta horrela egingo omen dute. Aldi berean, herrian, egoera salatzeko eta berari elkartasuna adierazteko hainbat mobilizazio eta lan burutu dira. Horien artean, Aretxa herri plataformak aurkeztu duen mozioa. Bertan aurkeztu ziren puntuak, nire uste apalean, behintzat, erraz onartzeko modukoak ziren: 1. Bere senideei elkartasuna adieraztea. 2. Nantes espetxeko zuzendariarekin harremanetan jarri eta bere egoeraren berri izatea. Egoera hori aldatzeko pausoak ematea eskatzea. 3. Estatus politikoa onartuta ekidingo liratekeen isolamendu eta dispertsioa salatzea. 4. Udalak egoera salatzeko herritarrei parte hartzeko deia egingo dien deialdi bat egitea. Ez dira beste munduko eskakizunak, ezta?

PNV abstenitu egin zen. Arritxuk emandako argudioak? Ez zutela uste euskal preso politikoek izaera politikoa izan behar zutenik. Beste era batera esanda, ez direla preso politikoak eta, ondorioz, ez zutela 3. puntu horrekin bat egiten. Beste alde batetik, Udala ez dela inor kontzentrazio batera deitzeko argudioa erabiliz, azkeneko puntua ere ez zuen bere egiten. Bi ezezko hauekin zalantza bat sortu zait. Arritxurendako delinkuenteak al dira euskal preso politikoen kolektiboan dauden guztiak? Zuretzat gatazka politikorik bizi al dugu? PNVko beste zinegotziek berdina pentsatzen al duzue? 4. puntuaz lotuta, beste izaera bateko gertakari bat herrian gertatzen bada, Udalak deituko al du kontzentrazio batera?

Nire ustez, bi erantzun horiekin Arritxuk erakutsi du Euskal Herriak bizi duen egoeraz ezer gutxi dakiela edo ezjakintasun maila jakin bat duela, behintzat. Espetxean dauden euskal preso politikoak egun Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoaren ondorio bat dira, gustatu ala ez, eta beraz, ezin dira ikuspuntu horretatik haratago doan fenomeno bezala hartu.

Gutun hau ez nuke bukatu nahi Zuhaitz eta bere senideei besarkada bero bat bidali gabe. Gora euskal preso politikoak!

GARIKOITZ ITURBE
Aretxabaleta

## Oñatiko herriari

Oñatiko Mendi Bizikletako proba ez antolatzeko erabakia hartu genuenean, gure asmoa ez zen polemikarik sortzea, baizik eta gutun baten bitartez jendeari azaltzea zeintzuk ziren proba ez antolatzearen arrazoiak, eta horrela egin genuen joan den asteko GOIENKARIAn agertutako gutunean.

Baina, GOIENKARIAko zenbaki berean agertutako Oñatiko Kirol Batzordeak idatzitako gutunean ez dugu uste kontuan izan denik 17 urtez proba antolatzen ibili garen taldea. Lehenengo loreak bota eta gero aurpegira burla egin digutela iruditzen zaigu. Horregatik, batzar batera deitu genien azalpen eske. Astelehen honetan, hilak 12, egin genuen batzarra. Gutunaren inguruan eztabaidatu ondoren, puntu batzuen erroktifikazioa eskatu genien, eta beraien ezetzaren ondoren, hemen gure azalpenak:

Gutunean zioen Kirol Batzordeak: "Aurtengo diru-laguntza ixa iaz izandako defizitaren bikoitza izan da". Iaz onartutako diru-laguntza 560 eurokoa izan arren, 352 euro bakarrik jaso genituen; Izen-ematetik 860 euro jaso genituen. Gastuak 1.640 euro izanik, falta ziren 428 euroak antolatzaileok gure poltsikotik jarri genituen.

"Proba ez antolatzeko arrazoia ekonomikua al da?". Eta orain galdera hori luzatzen dute. Aurten eskatutako dirulaguntza gure eskaeraren heren batera ez denean iristen, argi daukagu berriro ez dugula antolatuko eta oraindik ere dirua poltsikotik jartzen amaituko.

"Laguntzak hor dauzela eta lanerako goguakin ondo arrazoittutako eskaerak luzatzen dauenantzat ez dala oztoporik jartzen". Aurtengo aurrekontua aurkeztera joan ginen uztailean kirol teknikariarengana. Honek Kirol Batzordeko batzarrean gure eskaera arrazoitzeko deituko zigula esan zigun. Oraindik zain gaude.

PD: Dirudienez, orain prest daude eskatutako dirua emateko, sei egun besterik falta ez denean probaren egunerako. Hau eskaini digute beraien gutunaren gaineko argibideak eskatzera joan garenean. Aurten gu ez goaz antolatzera.

TXANTXIKU PEDALADA ELKARTEA
Oñati

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza, Amaia Mundiñano eta Itxaso Berezibar
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



# TELEFONO ZENBAKI BERRIAK

Irakurle, hauek izango dira aurrerantzean
Goienkariako eta Berrigarako telefono zenbakiak:

**Goienkaria**
943 25 05 01
**Iragarki Sailkatuak**
943 25 05 01

**Berrigara**
943 25 05 02
**Faxa**
943 25 05 13

**Hartu kontuan!**

# Emakumezkoen saskibaloiko Euskal Kopa, Eskoriatzan

## Hondarribia-Irun, Tabirako Baque eta Irlandesas UPV lehian

XABIER URTZELAI

**Beste behin, Eskoriatza Kirol Elkartearen ahaleginari esker ikuskizun aparta ekarri dute ibarrera. Hainbat talde zebiltzan emakumezkoen Euskal Kopa antolatzeko asmoarekin, baina gaurtik hasi eta domekara arte, Eskoriatzan izango da saskibaloi onena.**

Hondarribia Irun, Tabirako Baque eta Irlandesas UPV taldeak izango dira Euskal Kopa irabazteko lehian. Gaur arratsaldean (19:30) Hondarribia-Irun eta Tabirako izango dira zein baino zein gehiago. Zapatuan (19:30) Tabirakok Irlandesas taldearen kontra neurtuko ditu indarrak; eta, domekan (12:30), Irlandesas taldeak Hondarribia hartuko du.

Manolo Muñozek esan digu faborito nagusia Hondarribia-Irun dela: "Talde hori da Euskal Herrian daukagun onena, Estatuko gorengo mailan jokatzen duelako. Aurten, gainera, Europan izango dira, Ligan hirugarren postuan sailkatzearekin batera babesle bat aurkitu dutelako. Joan den urtean ere eskuratu zuten Europan egoteko txartela, baina ez zuten dirulaguntzarik izan".

Emakumezkoen saskibaloiari bultza egiteko asmoarekin antolatu dute txapelketa hori Eskoriatzan: "Batzuek Euskal Kopa Bizkaian jokatzea gura zuten, baina Arabako eta Gipuzkoako federazioak gure alde izan ditugu, eta baita talde indartsuena ere: Hondarribia-Irun".



GOIENKARIA

Norgehiagoka guztiak doan izango dira.

## *Kirolabur*

**DEBAGOIENA/**PREFERENTEA

Aloña Mendi da etxean jokatuko duen ibarreko futbol talde bakarra. Oñatiarrek Touring taldea hartuko dute (domekan, 16:30ean). Aretxabaletak Idiazabalera egingo du bidaia (zapatuan, 17:00etan). Eta, hirugarren postuan dagoen Ordiziaren zelaira joan beharko du Mondrak (zapatuan, 17:00etan).

**BESAIDE/**OROIMEN EGUNA DOMEKAN

Domekakoa 50. urteurrena izango da, gainera. 10:30ean hasiko dira goiza txistulari eta txalaparta jotzaileekin girotzen. 11:00etan meza, eta gero, Ondarroako Mendi Taldekoek ardoa banatuko dute perlita pintxoekin. Jasotzen duten dirua Kilometroak jaiarendako izango da.

**OÑATI/**MENDIKO BIZIKLETA IRTEERA

Udalak behar baino dirulaguntza txikiagoa eman duelako haserre dabiltza Oñatiko mendiko bizikleta zaleak. Dirulaguntzarekin, edo barik, azkenean erabaki dute irteera egitea (domekan, 09:00etan) . Hori bai, kontuan izan ez direla orain arte egon diren erosotasunak egongo; besteak beste, bakoitzak eraman beharko du jatekoa eta edatekoa. Mendi ibilaldia 40 kilometro ingurukoa izango da.



GOIENKARIA

Domekan, Olatetik Urtagainera botako dituzte lehenengo izerdiak.

# Hasi kirola egiten, baina tamainan

## Inoiz egin ez dutenek zein betiko kirolariek poliki-poliki hasi behar dute kirola egiten

Edozein egun edo sasoi da ona kirola egiten hasteko. Udako oporren ostetik hona ere makina bat jende ikusten da korrika, bizikletan edo paseatzen, besteak beste. Hala ere, inoiz ez da ahaztu behar tamainan eta norberaren erritmoan egin behar dela, pasatu gabe.

**KILOMETROAK ETA DENBORA**

Athlon medikuntza etxeko Ostaizka Egia medikuak esaten duen bezala, "inoiz kirolik egin ez duena ezin da hasi denbora laburrean kilometro asko egiteko asmoarekin, baina ezta lehendik ere kirola egiten zuena ere".

Udako oporretan edo atseden hartzen dugun beste edozein sasoitan, gorputza lasaitu egiten da eta ezin da edozein modutan kirola egiten hasi. Komeni da poliki hastea; norberak ikusi behar du noiz egin ahal duen eta zenbat denbora duen egiteko, baina gorputza zigortu barik.

**OSASUN AZTERKETA**

Athlonen egiten dituzten osasun azterketak egitea oso gomendagarria dela dio Ostaizkak. "Tentsioa, esfortzu proba, elektrokardiograma, biriken ahalmena eta beste hainbat arlo kontrolatzen eta zaintzen ditugu azterketa horiekin", dio. Banakako azterketak izaten dira eta nork bere kirol taula zein den jakin dezake.

Erritmo aldaketa, adibidez, ez da ona tentsioarendako eta kolesterolak ere badu zerikusia kirola egiteko moduarekin. Beraz, "asko zaindu behar dute kirola egiteko modua, bai urte guztian egiten dutenek, bai azken 10 urteotan egin ez dutenek eta baita oraintxe hasiko direnek ere", dio Ostaizkak.

**ARROPA EGOKIA**

Arropak ere badu zerikusia. Arropa egokia eramatea da aholkua. Ostaizkaren gomendioa da "arropa erosoak janztea kirola egiteko, ez dute zabalak izan behar, ezta estuegiak ere, erosoak baizik". Kotoia janztea aholkatzen du eta zapatila berriekin korrikarik ez egitea; aurretik lanerako edo paseatzeko erabiltzea gomendatzen du hark.



GOIENKARIA

Arropa erosoa da kirola egiteko egokiena.

### Osasun azterketak gomendagarriak dira

### Zapatila berriak ez dira korrikarako

**KIROL ZERBITZUEN BERRIAK JASOTZEKO:**

| | |
|---|---|
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Bergara | 943 77 91 67 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua




| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| J. Carlos Guerra 1<br>Tel.: 943 79 29 95<br>**ARRASATE** | Ibargarai 16<br>Tel.: 943 76 15 75<br>**BERGARA** | Bidebarrieta 2<br>Tel.: 943 20 05 22<br>**EIBAR** | Koldo Mitxelena, 7<br>Tel.: 943 51 78 11<br>**ERRENTERIA** | Mendibil M. G.<br>Tel.: 943 63 99 01<br>**IRUN** | J.M. Barandiaran Enp.<br>Tel.: 943 88 99 88<br>**ORDIZIA** | San Frantzisko 23<br>Tel. 943 69 84 70<br>**TOLOSA** |

**Ikus itzazu argazkiak, astero, Asteleheneko Goienkarian!**

UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA I. LEHIAKETA

# Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

**...eta lau sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!**

**Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/udakoargazkiak**



**Har ezazu parte!**

## Baldintzak

- Udako argazkiak izan beharko dute: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Inoiz argitaragabeak.
- Koloreetan zein zuri-beltzean.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Epea zabalik dago 2005eko irailaren 19ra arte.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko bereizmen eta kalitatearekin).
- Argazkiak bidali ahal izango dira e postaz *argazkiak@goiena.com* helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
  - Arrasate: Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500 Arrasate.
  - Arrasate: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate.
  - Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara.
  - Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan gutun-azal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta *jpg* formatuan.
- Parte-hartzaileek nahi beste argazki bidali ahal izango dituzte.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, edo beste komentario laburren bat).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero; azken sorta, irailaren 26ko *Asteleheneko Goienkaria*-n.
- Urriaren 3ko *Asteleheneko Goienkaria*-n aditzera emango dira irabazleen izenak.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko. Baina lehiaketarako argazki guztiak hartuko dira aintzat.
- Epaimahaiak baloratuko ditu: gaia, kalitatea, originaltasuna, momentua, bizitasuna..., besteak beste.
- Jasotako argazkiak *Asteleheneko Goienkaria*-ren artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, betiere egilea aipatuta.

## Sariak

**1. saria:** Olympus E-300 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
8 milioi pixel. / Zuiko digital 14-45 mm objektiboa. / Objektibo aldagarriak. / Flash eta guzti. / 1,8 pulgadako LCD pantaila atzealdean.









- **2. saria:** bi gaueko/hiru eguneko egonaldia Kantabria edo Asturiasen Eroski Bidaiak agentziaren eskutik.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
- **SARI BEREZIA:** parte hartzaile guztien artean sari sorpresa.

Babeslea: gizarte ekintza

Laguntzaileak: GURE AMETSA JATETXEA · EROSKI/bidaiak merezi duzu · Mobiliario Arenaza ALTZARIAK • DISEINUA · kiñu argazkilariak

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa
Harpidedun egiteko:
902 36 38 51

# Goienka2a

Egubakoitza / 2005eko irailaren 16a

Kultura eta aisialdia

Irailaren 16tik 23ra



Iban Garate, Paco Sagarzazu, Ramon Agirre eta Elena Irureta, Aupa, Etxebeste filmean.

# Etxebestetarrak, Zinemaldian

**Asier Altuna bergararraren filma Zabaltegi sailean lehiatuko da**

*Aupa, Etxebeste* (Zabaltegi-Zuzendari Berriak) eta *Obaba* (Sail Ofiziala) filmek ukitu debagoiendarra eman diote aurtengo Donostiako Zinemaldiari. Debagoiendarra da, izan ere, *Aupa, Etxebeste*-ko zuzendarietako bat, Asier Altuna, eta bere herrian, Bergaran, filmatu dira lan horretako eszena asko. Orain, emaitza hori pantaila handian ikusiko da, eta ez edozein modutara, gainera, estreinaldia Donostiako Zinemaldian izanda. Sarrerak agortu egin dira, baina laster izango dugu ibarrean ikusteko aukera: orain hurrengo, Arrasaten emango dute, hilaren 23tik 26ra bitartean.

**MIKEL LASKURAIN, FILM FABORITOAN**

*Aupa, Etxebeste* filmean agertzen da aktore bergarar ezagun bat, Mikel Laskurain. Eta ez hor bakarrik, baita Sail Ofizialeko faboritoetako baten ere, *Obaba*-n. Laskurainek hor egiten duen rola minututan oso txikia izan arren, gogobetetasun pertsonal aldetik oso handia izan da: hala, aktoreak zineman lan egiteko aukera izan du Montxo Armendarizen eskutik.

Ibarreko zinemagintzak albiste izaten jarraituko du gainera, Mireia Gabilondok filmatu egin berri duelako *Kutsidazu bidea, Ixabel*. /**14-15**

LEIRE KORTABARRIA





Zinemaldiko kartela.

AZALA: IÑAKI ITURBE / ARGAZKIA: DONOSTIAKO ZINEMALDIA

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko irailaren 16a

ZINEMA/ **DEBAGOIENDARRAK DONOSTIAKO ZINEMALDIAN**

# Bergarar baten filma, lehiaketan

'AUPA, ETXEBESTE' ASIER ALTUNA BERGARARRAREN FILMA LEHIAN DAGO, ETA MIKEL LASKURAINEK ROL BAT DU 'OBABA'-N

LEIRE KORTABARRIA

**Donostiako Zinemaldiak Debagoieneko ukitu nabaria du aurten: *Aupa, Etxebeste* filma, Asier Altuna bergarararrak Telmo Esnalekin zuzenduta, hantxe estreinatuko da. Bestalde, *Obaba* filma atzo, eguena, estreinatu zuten; han agertzen da Mikel Laskurain aktore bergararra.**

Debagoiendarrek, edo, hobeto esanda, bergararrek, kontuan hartzeko rola izango dute 53. Donostiako Zinemaldian.

Debagoieneko zuzendari bat, Asier Altuna bergararra, *Aupa, Etxebeste* film luzearekin lehiatuko da Zabaltegi-Zuzendari Berriak sailean. Telmo Esnalekin batera zuzendutako filma da, eta bergararrek ondo ezagutzen dute, izan ere, orain urtebete filmatu zuten zati handi bat Bergaran. Hainbat herritar estra lanetan agertzen dira filmean. Altunarendako, lorpen handia da Zinemaldian egotea, kontuan hartuta bere lehen film luzea dela, eta euskarazkoa dela –13 urtean euskaraz egindako lehen euskal film luzea da. Horregatik, ez dago sariaren esperoan (sail horretako saria 120.000 eurokoa da): "Oso zaila da irabaztea, oso film onak daudelako lehian. Sariak etortzen badira, ondo; baina ez gaude horiei begira". Altunarendako, garrantzitsuagoak dira beste lorpen batzuk: "Donostiako zinemaldia maila handikoa da Europan. Eta nahikoa lan izaten da filma egin eta gero estreinatzea; hortaz, oihartzun honekin oso pozik gaude. Filmarekin ere oso gustura geratu gara".

Zinemaldian, hilaren 22an, eguenean, estreinatuko dute, 19:00etan. Egun horretan, 22:00etan ere emango dute. Hilaren 23an, 09:30ean eta 18:30ean emango dute; eta 24an, 16:30ean. Datu pozgarri bat da, Asier Altunak berak dioen bezala, sarrera guztiak saldu direla dagoeneko. Ikusteko gogoarekin geratu ziren debagoiendarrek, hala ere, izango dute aukera gehiago: hilaren 23an estreinatuko da Euskal Herriko zinema aretoetan, Arrasateko Amaia antzokian, besteak beste. Zinemaldian egoteak oihartzuna eman dio filmari: hala, 25 kopia daude Estatuko hiriburutan estreinatzeko.

*Aupa, Etxebeste* komedia ukituak dituen drama da. *Etxebeste* familia udan oporretan joateko beste diru barik geratu da, bai-



'AUPA, ETXEBESTE'

Asier Altuna bergararra da *Aupa, Etxebeste* filmeko zuzendari bat. Filma ikusteko sarrerak agortu egin dira Zinemaldian.



GOIENKARIA

*Aupa, Etxebeste* filmeko eszena bat.



'AUPA, ETXEBESTE'

Paco Sagarzazu eta Iban Garate aktoreak.



GOIENKARIA

Bergarako banda *Aupa, Etxebeste*-n agertzen da.



GOIENKARIA

Altunak eta Esnalek Bergaran filmatu zuten.

FIDANTZA ETA EPEAK

## Bergaran estreinaldi berezia egin nahi zuten, baina zinema aretorik ez dago

**Pena batekin geratu da Asier Altuna: sorterrian, Bergaran, filma estreinatzeko aukerarik ez izana. Ulertzekoa, Bergara zinema aretorik gabe geratu delako. Berak honela diosku: "Nahi genuen Bergaran, aktoreekin-eta, estreinaldi berezia egitea, herriari filmaketan izan zuen jarrera ona eskertzeko. Baina gero konturatu ginen zinema aretorik ez dagoela. Pena bat da".**

**Bergaran ez, baina Debagoieneko beste areto batzuetan emango dute filma: Arrasateko Amaia antzokian hilaren 23tik 26ra bitartean emango dute, eta bost saio egingo dituzte.**

ZINEMALDIA, IBARREKO BATEK IKUSITA

## Marta Moral kazetari debagoiendarraren ustez, 'Obaba' filmak irabaziko du

**Marta Moral kazetari bergararrak Cope irratian eta Donostiako telebista baten ematen du Zinemaldiaren berri, eta aurten ere hala egingo du. "*Obaba*-k irabaziko du", dio berak, eta gaineratzen du: "Gustatzen zaizkit datozen filmak, baina, ikusi arte, itxaron egin behar". Asier Altuna ezagutzen du, eta hau dio: "Asko espero dut *Aupa, Etxebeste*-tik. Ea irabazten duen!"**

**Donostia Sariak –Willem Dafoe eta Ben Gazzara, hirian izango direnak– "ondo emanda" daudela uste du. Beste aktore ezagun askorik ez etortzeaz, Martak dio Irailaren 11tik hala izan dela.**

ELGETAN ERE, ZINEMA ALBISTEAK

## Gary Oldman eta Aitana Sánchez-Gijón Iturri baserrian filmatzen ari dira

**Koldo Serra Elgetan filmatzen ari da bere debut filma, *El bosque de las sombras*. Gaur, egubakoitza, ziren filmaketa bukatzekoak. Filmeko protagonistak aktore ezagunak dira: Gary Oldman –*Bram Stoker's Dracula, Beethoven, Harry Potter*–, Aitana Sánchez-Gijón –*El maquinista, La puta y la ballena*– eta Virginie Ledoyen –*La playa*.**

**Iturri baserrian dihardute lanean, Arantzeta auzoan. Batik bat, gauez egin dute lan. Western modernoa da istorioa, nekazal giroko leku baten. Asteburu idiliko bezala hasten dena pertsonaien arteko ehiza baten bukatuko da.**




ALTA FILMS
*Obaba*-k irabazteko aukera handiak ei ditu.



ARGAZKI PRESS
Mikel Laskurain bergararrak *Obaba*-n rol bat izan du.

na, itxurak gordetzearren, erabakitzen dute hil osoa etxean ezkutatuta pasatzea. "Jendea identifikatuta sentituko da istorioarekin", dio Altunak.

**MIKEL LASKURAIN, 'OBABA'-N**

Atzo, eguena, estreinatu zuten Sail Ofizialeko faborito nagusia: *Obaba*, Bernardo Atxagaren *Obabakoak* lanaren zinemarako moldaketa, Montxo Armendarizek zuzenduta eta Pilar Lopez de Ayala eta Juan Diego Botto protagonista dituela. Baina bergarar bat ere azaltzen da filmean: Mikel Laskurain aktore ezaguna. Herriko postariaren rola egin du. "Protagonista gutun baten zain dago eta egunero joaten da posta-bulegora. Neuk ematen diot gutuna eskura", dio Mikelek. Rol txikia da, hortaz, Mikelena, baina badu bere garrantzia istorioan.

Debagoiendarraren oso gustuko lana izan da hori: "Oso gustura ibili naiz Piriniotan, Isaba ondoan: mendira, perretxikoak batzera… joaten nintzen. Lankideekin ere oso ondo moldatu naiz. Zuzendaria oso xamurra da, primeran portatu da nirekin", azaltzen du. Horrez gain, zineman lan asko egin gabekoa zen, eta arlo horretan eta Montxo Armendarizen esanetara lan egitea oso garrantzitsua izan dela diosku. Zinemaldian, irabazteko "aukera asko" ikusten dizkio Mikelek filmari.

Bitxikeria bat da *Aupa, Etxebeste* lanean ere agertzen dela Laskurain, estra lanetan. Asier Altunak hala eskatuta egin zuen.

Obaba filmak bina emanaldi zituen atzo, eguena, eta gaur, egubakoitza. Torontoko Zinema Jaialdian, aretoa bete-bete eginda estreinatu zuten filma irailaren 10ean.

**SARRERAK EROSTEKO**

Zinemaldira joaten direnek badakite zaila izaten dela film batzuetarako sarrerak erostea. Debagoienetik, modu errazena eta azkarrena da Internetez: *www.sansebastianfestival.com* webgunean edo *www.kutxa.net* Kutxaren webgunean egin daiteke. Baita Kutxaren kutxazain eta telefonozko zerbitzuan ere (943 00 12 00). Donostian bertan, Kursaal zentroan, Principen, Warnerren eta Belodromoan daude salgai.

# Mireia Gabilondoren lana

**Eguraldia dela eta, egun pare bateko atzerapena izan dute, baina aste honetan bertan zen bukatzekoa Mireia Gabilondo *Kutsidazu bidea, Ixabel*-en filmaketa. Aurtengo Zinemaldian ez, baina ziur zuzendari bergarararren filmak zeresan eta ikusmin handia piztuko dituela laster. Fernando Bernuesekin batera zuzendu du.**

**Lanaren lehen zatia baino ez da izan, oraindik goiz balorazioetarako; Gabilondok dio "distantzia" pixka bat behar dela horretarako. Baina gustura dago esperientziarekin: "Bi hilabete izan dira, eta lana oso gogorra izan da, ordu askokoa, baina polita ere bai". Filmaz gain, telesail bat ere egin dute. *Ixabel*-ekin maitemindutako *Juan Martin* euskaldun berriaren gorabehera aski ezagunak kontatzen ditu filmak.**

**Mireiak gustuko du Zinemaldia, baina aurten oporrik izan ez duenez, orain hartuko du atseden eta familiarekin bidaiaren bat egiteko aprobetxatuko dutela esan digu. Hala ere, Asier Altuna herrikidearendako hitz batzuk baditu: "*Aupa, Etxebeste* ikusteko gogo handia dut. Poz handia ematen dit filma Zinemaldian egoteak. Ea datorren edizioan hemen egindako film gehiago dagoen!"**



GOIENKARIA
Mireia Gabilondok *Kutsidazu bidea, Ixabel* filma zuzentzen bukatu berri du.

**Edozein premiatarako:**
- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

**Zure zerbitzura:**
- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Mikel Arroyo

CG
CONSULTORIO GINECOLOGICO



Policlinica Gipuzkoa

**ARRASATE**
**Zerkaosteta 17**
**943 79 20 18**
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 2
Irun: 943 61 78 88

# Iraila 16–23

**Leire Kortabarria /** Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 25 05 01** • Faxa: **943 25 05 13**

## MUSIKA

### ARRASATE

► **3.60 aretoan** honako emanaldiak izango dira: gaur, egubakoitza, DJ Txusen rock musika emanaldia (00:00etan, doan); eta bihar, zapatua, Capsula eta Los Cretinos taldeak (23:00etan, 4 euro) eta Loren (educative rec.) DJa (03:00etan, doan).

### BERGARA

► **Straitjackets** taldeak joko du gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan. 13 euro da, 15 txarteldegian bertan erosita. Longboards taldeak ere joko du.

► **Ziripot tabernak** honako emanaldiak antolatu ditu: DJ Lalas (Legazpi) vs. DJ Balza (Kogollo krew) gaur, egubakoitza; eta DJ KRC (samu) vs. DJ D_2 (Kogollo krew) bihar, zapatua. 00:00etan hasiko dira.

► **Rombos Negros eta Suntsipena** taldeen kontzertua izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 23:00etan.

### OÑATI

► **Amonal eta Gatillazo** taldeek kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza, gaztetxean, 19:00etan.

► **Elkartasun kontzertua** egingo du bihar, zapatua, Ganbara abesbatzak, Txanda elkartearen eskutik. Agustindarren elizan izango da, 20:00etan. Sarrera doan da, baina borondatez emandako diruarekin, Guatemalako Santa María Tzejá eskualdeari lagunduko diote.

## OSPAKIZUNAK

### ARRASATE

► **Besaide Egunaren 50. urteurrena** ospatuko dute etzi, domeka. Honako ekintzak egingo dituzte: 10:30ean, txalapartari eta txistulariekin ongietorria; 11:00etan, meza; 11:30ean, presidentearen berba batzuk; segidan, dantzariak eta Ondarroako Mendi Taldearekin mokadua.

### BERGARA

► **San Martin Agirre jaiak** ospatuko dituzte. Gaur, egubakoitza, San Martin Agirre eguna da: sokamuturra, meza, kalejira, udal bandaren kontzertua, umeen danborrada, antzerkia… izango dituzte. Bihar, zapatua, jaima (perkusio eta dantza afrikarra, zirkuko teknikak… erakutsiko dituzte), herri bazkaria, eskola alternatiboak, txarangaren kalejira, bonba japoniarrak, erraldoi, kiliki eta buruhandien kalejira, kontzertua eta DJ saioa izango dira; eta etzi, domeka, Erreileno eta Tostoien Kofradiako kapitulua eta 40. San Martin Txirrindulari Lasterketa, beste batzuen artean.

### ELGETA

► **Sagardo eguna** antolatu du gaztetxeak bihar, zapatua.

### ESKORIATZA

► **Arantzazura erromes** igoko dira hainbat herritar hilaren 19an, astelehena. Santutegiak hainbat ekintza eskaintzen dizkie.

### OÑATI

► **80an jaiotakoek** kinto ospakizuna egingo dute bihar, zapatua. Eguerditik aurrera, txikiteoa, bazkaria, karaokea eta parranda izango dituzte arratsalde eta gau osoan.

► **Haurren eguna** egingo dute etzi, domeka. 12:00etan, alkatearen agurra izango da; segidan, taldeen dantza kalejira. 17:00etan, erakustaldia egingo dute herriko plazan.

## DEIAK

### ARRASATE

► ***Ahozko jarduna hobetzeko proposamenak*** delako liburua aurkeztuko du Badihardugu elkarteak eguaztenean, hilak 21, udaletxean, 11:00etan.

### BERGARA

► **Drogen analisiak** egingo ditu Ailaket! taldeak bihar, zapatua, gaztetxean, gau partean. Gazte Asanbladak antolatu du.

► **Hezkuntza zerbitzuen udal gidaliburua** aurkeztuko du Udalak hilaren 20an, martitzena, kultura etxean, 11:00etan.

### DEBAGOIENA

► ***Iraila-Miraila Fagorren*** **delako kultura astea** antolatu du Fagorrek. Euskararen erabilera bultzatzeko, hainbat hitzaldi antolatu dituzte: *Oñatiko abizenak eta baserri izenak* (hilak 19, astelehena, Fagor Altzariak lantegian, Oñatin, 16:30; hizlaria: Jerardo Elortza), *Real Sociedad eta euskara* (hilak 20, martitzena, Fagor San Andresen, 16:30; hizlariak: Julen Iriondo, Inaxio Kortabarria, Xabier Bengoetxea, Jose Javier Barkero eta Aitor Lopez Rekarte); *Bertso lantegia* (hilak 21, eguaztena, Garagartzan, 14:30, Asier Iriondorekin) eta *Sagardoa eta euskara* (irailak 22, Mini Eskoriatzan, 17:00, Pedro Lizarralderekin).

► **Turandot adiskide elkarteak** bi ekintza antolatu ditu: afari bat gaur, egubakoitza, Bergaran; eta Biasterira irteera hilaren 24an, ardo-soto bat bisitatu eta herria ezagutzeko. Izena emateko, deitu 696 91 35 66 telefonora. Juan da arduraduna.

### ESKORIATZA

► **Ardo-dastatze saioa** izango da bihar, zapatua, herriko plazan, iluntzean. 5 eurorekin, edalontzia, pintxoa eta bi ardo ondu eta erreserba bat hartzeko aukera izango da. Aitzorrotz kultura elkarteak antolatu du.

► ***Gure aztarnen bila*** **izeneko jardunaldiak** antolatu ditu Ibarraundi museoak. Hala, datorren martitzenean, hilak 20, *Euskaldunak eta sinismenak* hitzaldia egingo du Pello Zabalak 19:00etan.

## IKASTAROAK

### ANTZUOLA

► **Hainbat ikastaro** antolatu ditu Udalak: yoga, masajea, dantza, tai chi, eskulanak, marrazketa eta margolaritza. Izena emateko aukera duzue gaur, egubakoitza, udal bulegoetan.

### ARETXABALETA

► **Interneteko ikastaroak** emango dituzte KZGunean: gaur, egubakoitza,




► IKUSKIZUNA

### ‘OTEHITZARI BIRAKA’: JEINUAREN EKARPENA, POESIAZ JANTZITA

*Otehitzari biraka* poesia, musika eta dantza ikuskizuna aurkeztuko dute etzi, domeka, Kukai eta Tanttaka taldeek Arrasaten. Jorge Oteitza eskultorearen omenaldia egiten dio lan horrek, eta horretarako poesiaren bidea aukeratzen du, artistak aldarrikatutako euskal arimaren ikerketa alboratu gabe. Mireia Gabilondo bergarararrak hartu ditu bere gain zuzendaritza eta harridazle lanak, eta Jon Mayak egin du dantza koreografia; Mikel Laboak, Pello Zabalak eta Joxe Angel Irigaraik euren ekarpena egin dute, Bingen Mendizabalek musikan egin duen bezala. Poesia eta musika erabiltzen dituzte umezaroaz, artearen alboratzeaz, hezkuntzaz, isiltasunaz… berba egiteko, betiere Oteitzaren ikuspegia aintzat hartuta.

**Non:** Arrasaten, Amaia antzokian. **Noiz:** irailaren 18an, domeka. **Ordua:** 20:00ak. **Taldeak:** Kukai eta Tanttaka.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA | ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA | FACULTAD DE CIENCIAS EMPRESARIALES



graduatu-ondoko ikasketak 2005–2006
masterrak

• Enpresen zuzendaritzako masterra – MBA
- Zuzendaritza Orokorra
- Finantza Zuzendaritza
- Marketing Zuzendaritza
- Garraio eta Hornikuntza Katearen Kudeaketa
- Kooperatigintza
- Berrikuntza eta Ekintzailetasuna
- Kirol Entitateen kudeaketa eta zuzendaritza

• Bankan eta burtsan masterra (birtuala) – MBB
• ERP enpresa informazio sistemen masterra – MSI

informazioa

**Enpresa Zientzien Fakultatea**
Oñatiko Campusa
Larraña, 16
20560 Oñati
Tel.: 943 71 80 09

postgrado@eteo.mondragon.edu
www.eteo.mondragon.edu

www.mondragon.edu
MONDRAGON CORPORACION COOPERATIVA

*Etxetik eros ezazu* delakoa (19:00-20:00); hilaren 19tik aurrera, egunero, Interneteko oinarrizko ikastaroa (18:00-20:00); eta hilaren 22an, eguena, *Komunikatu posta elektronikoaren bidez* izenekoa (16:00-18:00).

## ARRASATE

► **Margo ikastaroa** antolatu du udalak 8 urtetik gorakoendako. Irailaren 26tik aurrera izango da, ekainera bitartean, Monterronen, eta izena emateko aukera dago aste osoan Monterronen bertan, 17:00-19:00 ordutegian. Urte osoko matrikula da 115 euro.

► **Emakumeendako hainbat ikastaro** antolatu ditu Emakume Txokoak: yoga, tai chi, salsa, espresio dantza eta benetako mugimendua, autoestimua, krisialdiei aurre egiteko baliabideena, ingelesa, elektragailuak konpontzekoa eta eskulanak egitekoa. Urriaren 3tik abenduaren 30era bitartean izango dira. Izenematea zabalik dago irail osoan, Emakume Txokoan edo 943 79 41 39 telefonora deituta. Prezioa da 24 euro, 12 langabeendako eta 30 Arrasatetik kanpokoendako.

## BERGARA

► **5-15 urte bitartekoendako margo** ikastaroa antolatu du Beart elkarteak urriaren 1etik ekainaren 24ra, zapatuetan, 10:00-13:00 ordutegian. Izena emateko, deitu honako telefonoetara: 653 71 53 82 (Mayra) edo 615 75 60 19 (Oihana).

## DEBAGOIENA

► **Aisialdiko begirale ikastaroa** egingo du Debaguneak urritik aurrera. Antolatzen hasi aurretik, jakin gura dute zenbat lagun egongo liratekeen apuntatzeko gertu. Egunak, orduak… gero zehaztuko dituzte. Interesa duzuenok deitu 943 76 36 61 telefonora edo jo herriko euskara elkartera. Matrikula izango da 290 euro.

## ESKORIATZA

► ***Flashget*** delako Interneteko ikastaroa emango dute gaur, egubakoitza, KZGunean, 11:00etatik 13:00etara bitartean.

# ERAKUSKETAK

## OÑATI

► **Margo, zeramika eta eskulan** ikastaroetan ibili direnen erakusketa izango da hilaren 21etik 28ra bitartean kultura etxean, 18:30-20:30, egunero.

# Zinema

## ARRASATE

■ AMAIA ANTZOKIA

*La guerra de los mundos*
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

*Agur, Everest*
Eguena: 20:30.

## ELGETA

■ ESPALOIA

*El conflicto de los hermanos Marx*
Eguaztena: 21:30.

## OÑATI

■ KULTURA ETXEA

*La isla*
Egubakoitza: 19:30, 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
Astelehena, ikuslearen eguna.

## EIBAR

■ UNZAGA

*Cinderella man*
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

■ RIALTO

*Obaba*
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

## GASTEIZ

■ GURIDI

*Embrujada*
17:30, 20:00, 22:30.

*Sr. y Sra. Smith*
20:00.

*Cinderella man*
Egubakoitza: 17:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

*La madre del novio*
Egubakoitza: 17:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

*Obaba (euskaraz)*
17:30, 20:00, 22:30.

*Stealth, la amenaza invisible*
17:30, 20:00, 22:30.

*Charlie y la fábrica de chocolate*
17:30, 22:30.

*El secreto de los hermanos Grimm*
17:00, 19:45, 22:30.

■ FLORIDA-GURIDI

*Princesas*
17:30, 20:00, 22:30.

*Vodka lemon*
Egubakoitza: 17:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

*El viento*
17:30, 22:30.

*The actors*
18:00, 20:15, 22:30.

*The soul of a man*
18:00, 20:15, 22:30.

*Por qué las mujeres siempre queremos más*
18:00, 20:15, 22:30.

■ ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

*Stealth, la amenaza invisible*
16:30, 19:00, 22:00, 00:30.

*Ninette*
22:00, 00:30.

*El sonido del trueno*
16:00, 18:05, 20:15, 22:30, 00:45.

*Dos chalados y muchas curvas*
20:15, 22:30, 00:45.

*Gigoló europeo*
20:15, 22:15, 00:30.

*El secreto de los hermanos Grimm*
16:30, 19:00, 22:00, 00:30.

*Sr. y Sra. Smith*
16:30, 19:00, 22:00, 00:30.

*Sharkboy y Lavagirl*
16:00, 18:00.

*La isla*
16:00, 18:45, 21:40, 00:15.

*Las entrañas de la bestia*
16:00, 18:00.

*La madre del novio*
16:00, 18:05, 20:15, 22:30, 00:45.

*La noche del hermano*
20:00, 22:15, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ YELMO CINEPLEX-GORBEIA

*Guardianes de la noche*
18:05, 20:15, 22:25, 00:35.

*Embrujada*
12:15, 15:50, 17:55, 20:05.

*Cinderella man*
12:15, 15:45, 18:45, 21:45, 00:30.

*Princesas*
12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

*The descent*
12:15, 16:45, 18:45.

*Sr. y Sra. Smith*
12:15, 15:50, 18:05, 20:20, 22:35, 00:50.

*Charlie y la fábrica de chocolate*
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:40, 00:50.

*Dark water (la huella)*
22:15, 00:20.

*Gigoló europeo*
12:15, 16:45, 18:35, 20:25.

*El sonido del trueno*
18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

*La isla*
20:45, 23:45.

*Stealth, la amenaza invisible*
12:15, 17:15, 19:45, 22:15, 00:45.

*Doraemon y los dioses del viento*
12:15, 16:20.

*Sin city*
22:10, 00:40.

*El secreto de los hermanos Grimm*
12:15, 15:40, 18:00, 20:20, 22:40, 00:55.

*Sharkboy y Lavagirl*
12:15, 16:30.

*La tierra de los muertos vivientes*
12:15, 16:10, 18:10,20:10, 22:10, 00:10.

*La madre del novio*
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

*Cuatro hermanos*
12:15, 16:15, 18:25, 20:35, 22:45, 00:55.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

■ ÁBACO BOULEVARD

*Embrujada*
12:10, 16:00, 18:10, 20:25, 22:35, 01:00.

*Guardianes de la noche*
19:30, 22:05, 00:45.

*Doraemon*
12:15, 16:20, 18:15.

*La madre del novio*
12:00, 16:05, 18:10, 20:20, 22:30, 01:00.

*El sonido del trueno*
20:00, 22:10, 00:45.

*Dark water (la huella)*
12:15, 16:00, 18:05, 20:15.

*Stealth, la amenaza invisible*
12:10, 17:05, 19:40, 22:15, 01:00.

*Cinderella man*
12:00, 16:15, 19:05, 22:00, 01:00.

*Obaba*
12:15, 17:10, 19:30, 22:05, 00:30.

*El secreto de los hermanos Grimm*
12:10, 17:05, 19:45, 22:15, 01:00.

*Charlie y la fábrica de chocolate*
12:10, 17:10.

*Sin city*
22:25, 01:00.

*Ausentes*
12:10, 16:05, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

*Cuatro hermanos*
12:15, 16:00, 18:10, 20:25, 22:40, 01:00.

*Sr. y Sra. Smith*
12:00, 17:00, 19:30, 22:10, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

***Charlie y la fábrica de chocolate:* ●●●●**

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

# KRITIKA

## CINDERELLA MAN

PUNTUAZIOA: ●●●

**ZUZENDARIA:** Ron Howard.
**AKTOREAK:** Russell Crowe, Renee Zellweger, Paul Giamatti.

Film sendo eta distiratsu batek gehienetan ikuslea zinematik pozik irtetea lortzen du. Trinkoa eta sendoa bakarrik baldin bada, aspergarria edo gatzgabea izan daiteke, eta distiratsua bakarrik baldin bada, ez badu irudiak eusteko balio duen egitura dramatiko indartsurik, orduan zerbait hutsa izan daiteke. Horregatik, istorioari hurbiltzeko modu sendo bati (*Cinderella Man*-ek Jim Braddock boxeo borrokalariaren istorioa kontatzen digu) irudien distira eta ikusgarritasuna gehitzen badiogu (boxeo-borrokaldiak eta garaiaren berregitea bikainak dira), bi ordu baino gehiagotan ikuslea entretenitzea eta interesatzea lortzen duen filma daukagu.

*Cinderella Man*-en pertsonaia baten gainditze istorioa kontatzen zaigu. Braddock boxeolaria ekonomikoki oso ondo zegoen, 1929. urteko crash-a gertatu zen arte. Horren ondorioz, diru gabe bizitzea zer den jakingo du, baina egun baten, gorriak ikusi ondoren, gailurrera heltzeko aukera iritsiko zaio. Braddock amore ematen ez duen gizona da, momentu txarrenetan ez du bere zuzentasuna galtzen, eta horrela zorigaitz guztiak gainditzeko kapaz da. Istorioan



samurtasuna, drama eta gune ikusgarriak ondo neurtuak daude. Boxeo-borrokaldiak oso ondo filmatuak dauden arren, azkeneko borrokan *Rocky* motako filmetara gehiegi hurbiltzen da: aurkari harro, basati eta zirikatzaileak, eta gertatzen diren topiko batzuek filmari sinesgarritasun pixka bat kentzen diote. Baina, horrez aparte, Howard-ek nahiko modu egokian azaltzen digu, errepikakorra izatearen sentsazioa sortu gabe, zinema behin baino gehiagotan ikusitako istorioa.

Filmaren emaitza egokian zerikusi handia du Russell Crowe-n interpretazioak: aktoreak ederki islatzen du pertsonaiaren sufrimendua eta hark dituen dudak eta momentu latzak ez dute lortzen pertsonaia nokeatzea. Crowe ez da gehiegikerietan erortzen, eta oso lan neurtuarekin pertsonaiaren barruko indarra kanporatzea lortzen du. Horrela, ikuslea erabat txundituta geratzen da Jim Braddock-ekin, bai boxeoaren mito bezala, bai familiako aita bezala.

ANTONIO ZABALA

ZINEMA MERKEAGO
Txartel hau moztu eta sarrera merkeago izango duzu
www.cinesabaco.com
C.C EL BOULEVARD
C.C LAKUA
Promozio baliagarria 2005/09/30, astelehenetik ostiralera, jai egunetan eta bezperetan izan ezik. Ez da bateragarria beste promozioekin.
ÁBACO ZINEMA MAILA GORENEAN

KOROSTI
INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
• Duplexa erdialdean 180 m².
• Duplexa erdialdean Oso ondo.
• Erdialdea 110 m². Oso ondo.
• Erdialdea 50 m². Berritzeko.
• Erdialdea 78 m². Oso ondo.
• Erdialdea 120 m². Oso ondo.
• San Pedro 110 m². Berritzeko.
• Bolu 82 m². Garajea.
• San Pedro 75 m². Oso ondo.
• Duplexa Bolun 90 m².
• Koldo Eleizalde 80 m². Oso ondo.
• Bidekurutzeta 90 m². Oso ondo.
• Bidekurutzeta 96 m². Oso ondo.
• Osintxu 87 m². Oso ondo.
• Mugertza 104 m². Terraza.
• Artekalea 30 m². Ondo.
Antzuola:
• Eguzki auzoa 84 m². Eguzkitsua.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

ETXEBIZITZAK SALGAI
BERGARA:
• Erdialdea 72 m². Oso ondo. Ganbara.
• Erdialdea 90 m². Berrizteko.
• Erdialdea 77 m². Oso ondo.
• Bolu, duplexa 90 m². Garajea.
• Duplexa, erdialdean 116 m².
• Erdialdea 68 m². Oso ondo.
• Matxiategi 80m². Ondo.
• Martoko 60 m². Berritzeko.
• Elorregi 64 m². Berritzeko.
• Erdialdea 89 m². Berritzeko.
• Duplexa, erdialdean 170 m².
• Aranerreka 82 m².
• San Antonio 77 m². Ondo.
• Koldo Eleizalde 80 m². Oso ondo.
ANTZUOLA:
• Bustinzuri 88 m². Berria.
SORALUZE:
• Gipuzkoa etorb. 80 m². Oso ondo.
• Sagar-Erreka 50 m². Oso ondo.

# Iragarki sailkatuak

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01**

**sailkatuak@goiena.com**

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 16 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ARRASATE**
Etxetresna elektrikoak saltzen dituen denda batek behar du
ENTREGATZE LANAK EGITEKO MUTIL GAZTEA
943 77 00 34

**ARRASATE**
Kanpanzar ondoan dagoen SARA MERENDEROAK behar du
Zerbitzaria
Oporrak: Gabonetan, 10 egun Aste Santuan, 6 egun Abuztuan, 3 aste
943 77 15 86

**ARETXABALETA**
SUKALDARI LAGUNTZAILEA BEHAR DA ASTE BUKAERETAN. 652 70 82 46

**ARAMAIO**
ZERBITZARIA BEHAR DA ASTE BUKAERETARAKO. 945 44 50 86

**ARRASATE**
ILE APAINTZAILEA BEHAR DA. ESPERIENTZIA. ONDO ORDAINDUA 676 22 33 18

**ANTZUOLA**
ZERBITZARIA BEHAR DA 'ARIN' TABERNAN LAN EGITEKO. 943 76 64 19 Deitu 18:00etatik aurrera

**BERGARA**
ZERBITZARIA BEHAR DA. 943 76 20 61

**ANGIOZAR**
ORTZI ERRETEGIA ALOKATZEN DA. 943 78 22 80 665 72 24 46

**ARETXABALETA**
ZERBITZARIA BEHAR DA ASTE BUKAERETAN. 647 05 42 75

**ANTZUOLA**
JARDUNEAN DAGOEN ARGAZKI DENDA ETA BITXITEGIA ALOKAGAI EDO SALGAI. 943 78 70 66 635 75 72 71

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Arrasate.** 82 metro koadro. Eguzkitsua. Terraza eta sotoa. Bista politak. Igogailua. 264.000 euro. 616 60 96 28.

**Arrasate.** Amaia antzokiko eraikinean. 100 m². Azken solairua. Oso eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. 675 71 37 27.

**Bergara.** Apartamentu-duplexa salgai Barrenkalen. Egongela, sukaldea,

bainugela eta trastelekua. Logela teilatupean. Egoera ona. 126.213 euro (21.000.000 pta). Telefonoa: 627 55 61 13.

**Bergara.** San Antonio auzoan etxebizitza salgai. 72 metro koadro: hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. Eguzkitsua eta erdi jantzia. 160.000 euro, negoziagarriak. 943 76 40 65 edo 945 33 71 98.

**Gasteiz.** Lakua. Hiru logela. Ganbara, sotoa eta garajea. Urbanizazio pribatuan. 340.000 euro. 616 60 96 28.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Apartamentua ematen da errentan Iralabarri plazan. 615 76 40 19.

**Arrasate.** Erdialdean. Hiru logela. 696 72 27 00 edo 627 22 28 57.

**Arrasate.** Ikasleentzako etxebizitza errentan ematen da Aldaigainen. 943 79 75 52 edo 618 00 42 92.

**Arrasaten** Uribarri auzoan etxea alokatzen da. 619 67 26 96.

**Bergara.** Erdialdean. Bi logela. 620 54 86 33.

**Eskoriatza.** Apartamentua ematen da errentan. 943 71 46 27.

**Vera** (Almeria). Hondartza eta urbanizazio naturistan dagoen etxebizitza errentan. Jantzita. 657 73 94 25.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxe txikia hartuko nuke errentan. 636 30 57 43.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 620 47 43 15.

**Debagoiena.** Etxea behar dut errentan hartzeko. 620 37 47 93.

**Gasteiz.** Etxebizitza bila nabil Gasteizen. Ikasle etxebizitza ez bada, nahiago. 635 73 30 15.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela errentan, ikasle edo langileendako. Gela handia eta eguzkitsua. Muxibar. Xabi. 656 30 97 48.

**Bergara.** Etxea osatzeko jendea behar da. Esther. 945 00 48 21 edo 670 40 74 53.

**Oñati.** Hiru neska behar dira etxebizitza osatzeko. Eteotik gertu. Berritua. 605 74 52 02.

## 2/ GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Bi autorendako lekua daukan garajea alokatzen dut Obenerreka auzoan. 22:00etatik aurrera deitu. 943 79 69 41.

**Arrasate.** Garaje itxia errentan unibertsitatearen ondoan. Deitu 20:00etatik 22:00etara. 943 79 39 56.

**Arrasate.** Olarte kalean. Arratsaldeetan deitu, mesedez. 616 70 78 91.

## 3/ LOKALAK

### 304. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Neska-mutil koadrila batek lokal bat hartuko luke errentan. 609 51 93 67.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Pertsona bat behar da 07:30etik 09:30era bi ume zaintzeko. Autoa beharrezkoa da. 653 71 64 79.

**Bergara.** Arratsaldeetarako, umeak zaintzeko emakumea behar da. 629 38 39 64.

**Bergara.** Aste barruan, 5 eta 9 urteko bi mutiko zaintzeko emakumea behar da (16:30etik 20:30era). 943 76 50 86.

**Bergara.** Biltegi batean lan egiteko 30-40 urte bitarteko pertsona bat behar da. 656 72 04 31.

**Bergara.** Lagun bat behar da etxeko lanak egiteko eta umeak eskolara eramateko. Lan ordutegia: 08:00-12:00. 943 76 71 04 edo 628 48 52 34.

**Elgeta.** Pertsona bat behar da etxeko lanetan laguntzeko. Astean pare bat egunetan eta orduka. Telefonoa: 685 75 18 91.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Neska gertu garbiketa lanak egiteko, eta pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Leidi. 661 26 82 75.

**Arrasate.** Neska, tabernetan lan egiteko gertu. Astean zehar arratsaldez eta asteburuetan. Sheila. 655 72 07 75.

**Bergara.** Esperientziadun emakume bat garbiketa lanak egiteko gertu. 620 56 13 16.

**Bergara.** Gizon gaztea edozein lan egiteko gertu. Bergaran bada, hobe. Telefonoa: 685 70 76 25.

**Bergara.** Neska euskalduna arratsaldez lan egiteko gertu. 943 76 25 59.

**Bergara.** Pertsona edadetuak zainduko nituzke arratsaldez. 659 98 20 17.

**Debagoiena.** Arkitektu teknikoak egingo lituzke lokal komertzialen eta etxebizitzen proiektuak eta obrak zuzenduko lituzke. Gremioak koordinatu ere bai. 655 67 19 44.

**Debagoiena.** Egun osoz lan egiteko gertu. 669 14 33 65.

**Debagoiena.** Ekipamendu informatikoen konponketak egiten dira. 686 56 22 97.

**Debagoiena.** Neska gertu dago ospitalean gaixoak zaintzeko, gau eta egun. 653 71 53 61.

**Emakume euskalduna** arratsaldeetan zaharrak eta haurrak zaintzeko prest. 659 82 75 18.

**Eskoriatza.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko. 660 36 09 00.

**Mutil atzerritarra** goizez lanerako gertu: sukaldean, garbiketak edo pertsona nagusiak zaindu. Eerresidentzia baimena. Aurel. 666 83 21 95.

**Neska** gertu arratsaldez umeak zaintzeko. Nerea. Telefonoa: 685 60 61 97 edo 943 79 00 79.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Aretxabaleta.** Lehenengo batxilergoko matematika eta ingeles eskolak etxean jasoko nituzke. Gauez deitu. 943 53 38 19.

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Ingeleseko eskolak ematen ditut. Telefonoa: 943 79 03 83.

**Arrasate.** Ingeleseko eskolak emango nituzke. Baita banakoei ere. 943 77 16 90.

**Gitarra** eskola partikularrak, hasiberriendako. 35 euro hileko. Bluesa, rock-and-rolla, popa. 677 78 31 56.

**Pandero** eskolak. Esperientzia. 652 76 63 46.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Audi** 100 2.3E salgai. Oso auto ona eta egoera onean dagoena. 618 02 02 58.

**Benelli Scooterra** salgai. 600 euro. 605 75 54 75.

**Ford Courier** furgoneta salgai. Egoera onean. 2.500 euro. 943 76 53 76.

**Ford** Fiesta 1.1. 160.000 km. Egoera onean. 669 54 89 16.

**Golf** GTI autoa salgai. SS-AF. Prezio ona. 652 77 71 08.

**Hyundai Cupe** autoa salgai. 7.200 euro. 680 78 21 10.

**Kymco Bet-win 150** motorra salgai. Matrikula CZX. 4.000 km. 636 85 74 43.

**Suzuki** Swift automobila salgai, 1.3 GL. Hiru urteko garantia du. 605 74 39 49.

**Yamaha** WR 250F. 4T. BRR matrikula. 2002koa. Jabi. 943 79 89 82 edo 665 75 03 73.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Bibolina** saldu nahi dut. Bigarren eskukoa. Deitu arratsaldez. Maria Jose. 686 54 28 98.

**Karabana** salgai, Roller Phenix markakoa. Bañaresko kanpinean dago. Prezio interesgarria. 619 31 85 85.

### 802. EROSI

**Bankuko billeteak** eta metal mota guztietako txanponak erosten ditut. Bila joaten naiz deituz gero. 945 44 50 44.

### 806. GALDU

**Betaurrekoak.** Graduatutakoak. Egetako Galdaramuño mendian dagoen antenaren inguruan. Eskertuko da. 658 70 73 13.

**Umeen motorra.** Oñatiko Bidebarrieta plazan. Horia eta urdina. 943 78 36 23 edo 629 75 69 38.

### 808. BESTELAKOAK

**Trikitilariak** bazkariak, afariak edo festak alaitzeko prest gaude. 652 76 63 46.

**DEBAGOIENA**
KOMERTZIALA BEHAR DA. AUTOA DERRIGORREZKOA. 666 40 65 19

**FBS aholkulari informatikoak enpresak behar du**

**KOMERTZIALA**

**Eskatzen da:**
> Gehienez 35 urte izatea.
> Euskaraz jakitea.
> Informatika ezagupenak .
> Euskal Herrian lan egiteko.
> Esperientzia baloratuko da.

**Eskaintzen da:**
> Bezero-zorro zabala.
> Produktu gama zabala.
> Lansaria, lanaren arabera.

**Curriculumak bialtzeko:**
FBS Asesores Informaticos SL
Eguzki auzoa 5 behea
20577 Antzuola (Gipuzkoa)
Tel.: 943 76 65 13
eusarralde@fbs.es

fbs
**Informatika aholkulariak**
www.fbs.es

MONDRAGON UNIBERTSITATEA | GOI ESKOLA POLITEKNIKOA | ESCUELA POLITÉCNICA SUPERIOR

Operazioen Zuzendaritzan eta Logistika Integralean Masterra

iraupena
• 670 ordu
egutegia
• **Datak: 2005ko urriaren 7tik 2006ko uztailaren 13ra**
• **Egunak:** Astelehenetik ostegunera
• **Ordutegia:** 9:00-14:00
Tokia eta informazioa
Arabako Merkataritza-Ganbera
945 15 01 90
Lan-Poltsa
www.eps.mondragon.edu/moplog

www.eps.mondragon.edu/postgrados
MONDRAGON CORPORACION COOPERATIVA

C&C AKADEMIA
Matrikula zabalik!
LLONGUERAS
IRAKASKUNTZA ZENTROA
**ILE-APAINKETA ETA ESTETIKA**
Aurrena, eta zugandik gertu! Euskal Herriko irakaskuntza zentro bakarra!
**C&C Llongueras diploma ofiziala**
**Titulo ofiziala (3. maila) Erresuma Batuan**
**Nazioarteko lan-poltsa**
**Olagibel kalea 61, behea. GASTEIZ.**
Tel.: 945 12 03 60 • Posta-e: ces-llongueras@ya.com

## AIPAGARRI

### Jose Ramon Arantzabal
ELGETA



Arantzabal baserrikoa da Jose Ramon eta ondoko baserrian, Iturrin *El bosque de las sombras* filma errodatzen dihardute. Filmeko zati txiki batean baserritarraren papera jokatu du berak. Filmaketa martitzenean egin zuten, baina taldea datorren astera arte egongo da Elgetan.

### Kepa Errasti
ARETXABALETA



*Goenkale* telesaioko atal berrietan ikusi ahal izango dugu Kepa irailaren amaiera-tik aurrera. Alex pertsonaiaren papera jokatuko du. Marbellatik Arraldera bizitzera etorriko den familia berri bateko seme nagusia izango da bera. Aurrez, telebistan hainbat lan egindakoa da Kepa.

### Mikel Gonzalez
ARRASATE



Real Sociedad futbol taldean debuta egin duen azken debagoiendarra da Mikel. Aurre-denboraldian Hego Korean egindako biran talde nagusiarekin jokatu zuen eta baita lagun arteko partiduetan ere; besteak beste Atxabalpen Eibarren aurka. Orain, ligan debuta egiteko aukera izan dezake.



**Josu Larrañaga** eta **Bego Ormaetxea** zapatuan, irailaren 17an, ezkonduko dira Gantzagako San Millan elizan, Aramaion. Ondoren, Gure Ametsa jatetxean egingo dute bazkaria. Familiakoen partetik, zorionak, bikote!



**Bea** eta **Iñigo** zapatuan ezkonduko dira Arrasateko San Juan Bautista parrokian. Bazkaria, Bergarako Lasa jatetxean egingo dute familiartekoekin eta lagunekin. Zorionak, koadrilakoen partetik, eta egun zoragarria izan dezazuela, bikote!



**Usue Dominguez** eta **Iban Pablos** zapatu honetan ezkonduko dira Arrasaten, Uribeko elizan. Argazkia agur-parrandan ateratakoa da. Anai-arreben eta koinatuen partetik, zorionik beroenak eta ondo pasa dezatela ezkon bidaian.

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez GOIENKARIAren ordezkaritzetako batera.

GOIENKARIA
Astero
18.500 etxetan.
Eskelen prezioa:
82 €.

### HILDAKOAK

**J. M. Lete Madinabeitia.** Eskoriatzan, abuztuaren 31n. 74 urte.

**Rosa Moreno Ramos.** Arrasaten, irailaren 6an. 91 urte.

**Juana Mendieta Madinabeitia.** Arrasaten, irailaren 8an. 90 urte.

**Agustin Sandoval Revuelta.** Arrasaten, irailaren 9an. 81 urte.

**Angela Gantxegi Urisabel.** Bergaran, irailaren 10ean. 82 urte.

**Francisco Del Monte Gomez.** Arrasaten, Irailaren 12an. 61 urte.

**Victor Lasa Diaz de Mendibil.** Bergaran, irailaren 14an. 89 urte.



Bartzelonako **Kike** eta Arrasateko **Ana** abuztuaren 26an ezkondu ziren Leintz Gatzagako udaletxean eta bazkaria Gasteizko Palacio Elorriagan egin zuten familiakoen eta lagunen artean. Etxekoek aprobetxatu nahi dute une hau zorionak emateko: zorionak, bikote!

### URTEURRENA

## Carlos
## Garcia Barberan



Lehen urteurreneko meza
domekan, irailaren 18an,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

### URTEURRENA

## Ramon
## Zuazubiskar Etxabe



Bosgarren urteurreneko meza
domekan, irailaren 18an,
12:00etan,
Arrasateko Uribarriko elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

### URTEURRENA

## Jacinto
## Cuadrado Lopez



Lehen urteurreneko meza
domekan, irailaren 18an,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

### URTEURRENA

## Rafael Morales Clemente
## Rosa De Maura
## Marcos Morales De Maura

Lehen urteurreneko meza
domekan, irailaren 18an,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.





Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

### ESKER ONA

## Javier
## Mayor Domingo
*Jabilo*

Arrasaten hil zen 2005eko irailaren 2an, 34 urte zituela.

Bihotzez eskertu gura diegu Javiren lagunei eta Arrasateko herriari eman diguten maitasuna, gertutasuna eta laguntasuna, eta baita Javiren arimaren betiko atsedenerako egindako elizkizunetan esku hartu izana. Jainkoak ordain diezazuela eta guztiok bedeinka gaitzala. Goian bego, Javi. Eskerrik asko.

—

Gonbidatzen zaituztegu hilaren 18an San Andresko Jasokunde elizan 12:30ean egingo dugun elizkizunera.



Javiren familia.
Arrasaten, 2005eko irailaren 16an.

**GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA**

Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.
*Boni Laskurain 3 BERGARA*
**943 76 35 71**

ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA



Orain dela bost urte ile asko zeukan.

# Zer egin ilea ez erortzeko?

**Hemezortzi urte ditut, eta aita bezala burusoil geratzeko beldur naiz. Ni baino nagusiagoak diren bi anaia ditut, bata burusoila eta bestea ez. Hori ekiditeko zerbait egin dezaket?**

***Igor T.***

Gaur egun ilea erori gabe luzaroan edukitzea lehen baino errazagoa da. Gustatuko ez zaizun gauza bat esan behar dizut: zure aitak begi berdeak edukitzeak ez du esan nahi zure begiak berdeak izango direnik, baina ilearen kontuan aita burusoila bada, kasu gehienetan semea ere burusoila izango da. Dena dela, badaude tratamendu berezi batzuk, eta ilearen erorketa 55-60 urtera atzeratzen dute.

Lehenengo eta behin, lasai zaitez eta neurriak hartu ilea eror ez dadin; ez kezkatu alferrik.

Zer egin beharko zenuke? Medikuarengana joan azterketa sakona egitera. Mikroskopioaren bidez ile desberdinen azterketa. Azterketa bat, alopezia androgenetikoa edukitzeko arriskua daukazun edo ez jakiteko. Zure amaren genetikak ere badu zerikusia. Aurretik aipatutako urratsak egin eta gero jakingo dugu zein den aplikatu beharreko tratamendua zure ilea ez dadin goizegi erori.

Emaitza ona duten tratamendu batzuk: Regaine/minoxidil, finasteride/propecia, mesoterapia B bitaminarekin, laserra, frekuentzia altua eta hainbat ukendu. Kasu bakoitzean komeni den tratamendua aplikatu behar da; tratamendu batzuk azkarrak dira emaitzak ematen, baina kontuan hartzeko bateraezintasunak dituzte. Beste batzuk, ordea, geldoagoak dira, baina ez dira kaltegarriak.

Ilea egunero garbitzeagatik ez zaizu ilea eroriko. Ondorengo hauek lagun dezakete ilearen erorketan: Xanpu erasokorrak, buruko azala gogor igurzteak, ur beroegiak eta ilea lehortzekoaren aire beroak.

Historialariek diotenez, Julio Cesar enperadore erromatarrak buruko koroa erabiltzen zuen burusoiltasuna ezkutatzeko.



**Maria Isabel Hurtado**
Dermatizista
e-maila: mi.hs@euskalnet.net

## HITZGEZIDUNAK

**Luma**

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
|  | | | Isilik / *Deitura | | Jardun, eragon / Nahaste | | Ondoren |
| | | | | | | | |
| | | | Begiaren eraztun / Alea ehotzeko leku | | | | |
| Ardo / Madarikazio | | Berba, hitz / Haizatu, iraitzi | | | | Tona / Titanioaren ikurra | |
| | | | | | Infusio mota / Ia-ia guztiak | | |
| Okela / *Izena | | | | | | | |
| | | | | | | Nitrogenoa / Kaiku, kirten | |
| Torturaren Aurkako Taldea / Astakirten | | | | Hektarearen ikurra / Kirol elkarte | | | Onez ..., asmo onez |
| | | | | | | | |
| Urrearen ikurra / Zakur | | | Bigun, ezti / Lehergai ezaguna | | | | |
| | | Zaletasun atzizkia / Oinarrizko edari | | | | Energia / Letra izena | |
| Dunbots, burrunba / Faltsu | | | | | | | |
| | | | | Kenketaren ikurra | | | |

## BILABILA7





## UMOREGIROAN

**Kike Amonarriz**



**OPORRAK**
Zuzendariak aurrezki kutxaren sukurtsalean sartu den azken enplegatua deitu du bulegora:

– Galdera sinple batzuk egin nahi dizkiat —esan dio zuzendariak—.

– Ni beti erantzuteko prest.

– Hiri gustatzen al zaik ardo epela?

– Ez, ezta batere!

– Eta emakumeen besazpiko izerdi usaina?

– Ez, noski!

– Oso ongi, orduan abuztuko oporrak hik neguan hartuko dituk!

**BASAMORTUKO ZIRIA**
Nairobitarrarekin joan nahi ez eta tolosar hau bakarrik abiatu da Saheleko basamortuan auto kaskar batean. Abiatu eta astebetera, bere ganbeluan doilor eta harro doan tuareg bakarti bat aurkitu du:

– Barkatu, jauna, komonak? —tolosarrak—.

– Zein egunetan bizi gara? —galdetu dio tuaregak—.

– Astelehenez, zer bada? —tuaregaren ateraldiarekin harrituta—.

– Orduan, hartu autoa, jarraitu zuzen osteguna bitartean, orduan jo ezkerretara eta eguerdirako topatuko dituzu komonak.

**IPARRALDEKO UMORE BELTZA**
Azken bolada honetan, honako txiste hau jarri da modan iparraldean

– Zergatik ez dago euskaldunik "Star Treck" filmetan?

– (!?!)

Erantzuna: etorkizunean gertatzen direlako!

## SOLUZIOAK

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
|  | | | ● | I | ● | A | ● |
| | | | O | S | O | R | O |
| | | | ● | I | R | I | S |
| ● | M | ● | E | L | E | ● | T |
| S | A | K | R | E | ● | T | E |
| ● | H | A | R | A | G | I | A |
| J | A | S | O | N | E | ● | N |
| ● | T | A | T | ● | H | A | ● |
| A | S | T | A | K | I | L | O |
| ● | A | U | ● | L | E | U | N |
| O | R | ● | T | U | N | ● | E |
| ● | D | U | N | B | A | D | A |
| B | O | R | T | ● | K | E | N |



Irailaren 19a: 056 zozketa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
**txokoa**

# Sariak astero!

Astelehenean, irailak 19, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
*Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!**

## Irailaren 19ko sariak




- Hiru gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTA**n bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).
- **MUNDUMIRA-**ko kamiseta bat.



**TUNISIARA BIDAIA ZORAGARRIA!**
Bi lagunendako bidaia zoragarria zozketatuko dugu irailean, ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedunen artean. Zorte on!
Laguntzailea: VIAJES IBERIA

## BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

**Harpidedun egiteko:**
**902 36 38 51**
Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

**Kuota:**
**Harpidetza kuota, 35 euro**
**2005 osoko** harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO
**Goienkaria**
astelehenean, **aste bukaera osoa**

055 zozketa
**saridunak**

Hauek izan dira aurreko zozketako irabazleak.
**Zure izena zerrendan badago,**
**ZORIONAK!**



**SARIA:**
**SAMSUMG 21" TELEBISTA**
Irabazlea:
**Itziar Lizarralde (Bergara)**
Argazkian, anaia Aiert eta iloba Joane, saria jasotzen.

**Hiru gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).**
- Lurdes Azkarate (Eskoriatza)
- Luis Arregi (Oñati)
- Jose Alberto Amilibia (Bergara)



## 'Harmailatik'

ASTELEHENA, 19 / **21:00 eta 22:30**

### Bergarako 40. San Martin txirrindulari lasterketa

Lehendakari Txapelketako txirrindulari lasterketa jokatuko da Bergaran, eta GOITBn ikusteko aukera eskainiko dizuegu. 19-20 urte bitarteko txirrindularientzat Lokatza Ziklismo Eskolak antolatutako lasterketa izango da Bergarakoa.



## 'Ikuskizuna'

MARTITZENA, 13 / **21:00 eta 22:30**

### Golden Apple Quartet laukotearen kontzertua

Golden Apple Quartet taldea 1986an sortu zuten. Lagun baten ezkontzan elkartu ziren eta hantxe eskaini zuten lehenengo saioa. Ordutik hona, ikuskizun guztietan askotariko musika estiloak nahastu dituzte umorearekin.



## 'Zarauzko Jaiak'

EGUAZTENA, 21 / **21:00 eta 22:30**

### Zarauzko Musika taldeen kontzertua

Euskal Herriko euskal jairik entzutetsuenak dira Zarautzen ospatzen dituztenak, eta ibarreko asko gerturatzen da bertara. Jai giroan Zarauzko musika eta antzerki taldeek eskainitako ikuskizuna ikusteko aukera izango da.



## 'Gure musika'

EGUAZTENA, 21 / **21:30 eta 23:00**

### Potemkin taldearen musika saioa Elgetako Espaloitik

Aspaldian Oñatin dauden taldeen artean Potemkin-ekoak nabarmentzen dabiltza. Elgetako Espaloia Kafe Antzokian kontzertu bikaina eman zuten. Hard-rocka, punk-rocka eta bestea hainbat musika mota indartsu uztartu zituzten.

## TELEBERRIAK

### Publizitateari tarte txikiagoa

Espainiako Senatuak eskatu dio TVEri publizitateari tarte txikiagoa eskaintzeko umeendako ordutegian. Hain justu ere, umeak telebista ikusten egon daitezkeen denboran, galarazi egin dio orduko 12 minutu baino gehiago eskaintzea publizitateari. Horretaz gain, saioen babesle-formulak ez erabiltzeko eskatu dio. Edukiei dagokienez, umeendako saioetan biolentziazko eszenak ez emititzeko eskatu dio.

### Zinemaldia ETBn eta TVEn

Aurten eta hurrengo bi urteetan TVEk jarraipen berezia egingo dio Donostiako Zinemaldiari. Horrenbestez, TVEk lekukoa hartuko dio azken urteotan Zinemaldia babestu duen Canal Plus kateari. Atzo, eguena, hasi zen Zinemaldia, eta ETB1ek eta TVEk eman zuten hasiera ekitaldia. Bi kateok jarraipen berezia egingo diote Zinemaldiari, eta, esaterako, amaiera ekitaldia zuzenean eskainiko dute biek, irailaren 24an, Kursaaletik. Bestalde, ETB1ek euskal zinemaren gaineko dokumental berezia eskainiko du astelehenean, 22:25ean, *Dokugunea* saioan. *Aupa Etxebeste!*, *Kutsidazu bidea, Ixabel* eta *Obaba* filmen gainean egingo dute berba. Hiru film horietan hainbat bergararrek egin dute lan: Asier Altuna da *Aupa Etxebeste*-ren zuzendarietako bat; Mireia Gabilondok zuzendu du *Kutsidazu Bidea, Ixabel*; eta, Mikel Laskurain aktoreak hartu dut parte Montxo Armendarizen azken filmean.

## ASTEKOPROGRAMAZIOA/ Irailaren 16tik 22ra

Goitb Goiena Telebista

| EGUBAKOITZA 16 | ZAPATUA 17 | DOMEKA 18 | ASTELEHENA 19 | MARTITZENA 20 | EGUAZTENA 21 | EGUENA 22 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 13:50 **Marrazki bizidunak:** Kazetari ausartak eta Lazkao Txiki<br>14:15 **Berriak Aurrerapena**<br>14:30 **Marrazki bizidunak:** Iratxo Magikoa<br>15:00 **Jaun ta jabe**<br>15:30 **Berriak Aurrerapena**<br>15:45 **Klip@**<br>19:40 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Klip@**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Marrazki bizidunak:** Kazetari ausartak eta Lazkao Txiki<br>21:00 **Eguzki lore:** Baztan<br>21:30 **Ilunpean:** Pako Aristi<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Eguzki lore**<br>23:00 **Ilunpean**<br>23:30 **Emisio amaiera** | 11:05 **Marrazki bizidunak:** Kazetari ausartak eta Lazkao Txiki<br>13:00 **Ilunpean**<br>13:30 **Ikuskizuna:** Zarauzko Euskal Jaia<br>14:00 **Chiloé**<br>14:30 **Montana**<br>15:00 **Eguzki lore**<br>15:30 **Jaun ta jabe**<br>16:00 **Harmailatik:** Leintz Gatzagako lasterketa<br>16:30 **Klip@**<br>16:45 **Marrazki bizidunak:** Iratxo Magikoa eta Lazkao txiki<br>18:15 **Chiloé**<br>18:45 **Klip@**<br>19:00 **Eguzki lore**<br>19:30 **Ilunpean**<br>20:00 **Emisio amaiera** | 11:05 **Montana**<br>12:00 **Marrazki bizidunak:** Iratxo Magikoa eta Lazkao Txiki<br>13:30 **Chiloé**<br>14:00 **Eguzki lore**<br>14:30 **Montana**<br>15:00 **Ikuskizuna:** Zarauzko Euskal Jaia<br>15:30 **Marrazki bizidunak:** Kazetari ausartak<br>17:00 **Klip@**<br>17:15 **Ilunpean**<br>17:45 **Marrazki bizidunak:** Iratxo magikoa<br>18:45 **Jaun ta jabe**<br>19:15 **Harmailatik:** Leintz Gatzagako lasterketa<br>19:45 **Emisio amaiera** | 13:50 **Marrazki bizidunak:** Kazetari ausartak eta Lazkao Txiki<br>14:15 **Berriak Aurrerapena**<br>14:30 **Ilunpean**<br>15:00 **Eguzki lore**<br>15:30 **Berriak Aurrerapena**<br>15:45 **Klip@**<br>19:40 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Klip@**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Marrazki bizidunak:** Kazetari ausartak eta Lazkao Txiki<br>21:00 **Harmailatik:** Bergarako San Martin lasterketa<br>21:30 **Chiloé**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Harmailatik**<br>23:00 **Chiloé**<br>23:30 **Emisio amaiera** | 13:50 **Marrazki bizidunak:** Iratxo Magikoa<br>14:15 **Berriak Aurrerapena**<br>14:30 **Harmailatik:** Bergarako San Martin lasterketa<br>15:00 **Chiloé**<br>15:30 **Berriak Aurrerapena**<br>15:45 **Klip@**<br>19:40 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Klip@**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Marrazki bizidunak:** Iratxo Magikoa<br>21:00 **Ikuskizuna:** Golden Apple Quartet<br>21:30 **Ikuskizuna:** Benito Lertxundi<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Ikuskizuna:** Golden Apple Quartet<br>23:00 **Ikuskizuna:** Benito Lertxundi<br>23:30 **Emisio amaiera** | 13:50 **Marrazki bizidunak**<br>14:15 **Berriak Aurrerapena**<br>14:30 **Ikuskizuna:** Golden Apple Quartet<br>15:00 **Ikuskizuna:** Benito Lertxundi<br>15:30 **Berriak Aurrerapena**<br>15:45 **Klip@**<br>19:40 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Klip@**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Marrazki bizidunak**<br>21:00 **Musika:** Zarauzko musika taldeen kontzertuak<br>21:30 **Gure musika:** Potemkin<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Musika:** Zarauzko musika taldeen kontzertuak<br>23:00 **Gure musika**<br>23:30 **Emisio amaiera** | 13:50 **Marrazki bizidunak:** Iratxo Magikoa<br>14:15 **Berriak Aurrerapena**<br>14:30 **Gure musika:** Potemkin taldea<br>15:00 **Ikuskizuna:** Zarauzko musika taldeen kontzertuak<br>15:30 **Berriak Aurrerapena**<br>15:45 **Klip@**<br>19:40 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Klip@**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Marrazki bizidunak:** Iratxo Magikoa<br>21:00 **Jaun ta jabe**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Jaun ta jabe**<br>23:30 **Emisio amaiera** |
| 21:00 **Eguzki lore** | 14:30 **Montana** | 15:30 **Marrazki bizidunak** | 21:00 **Harmailatik** | 21:00 **Ikuskizuna** | 21:30 **Gure musika** | 22:30 **Jaun ta jabe** |

**GOIENA TELEBISTA /** Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com** • Telefonoa: **943 71 23 95**

## KAMERAAURREAN



***"Gazte-gune hauek (gaztetxeak) gazteendako erreferentzia izan behar dute, eta, gainera, elkarren arteko harremanen lekuko ere badira".***

**Marijo Altube /** Oñatiko ezker abertzaleak
'Berriak' (2005/09/13)



***"Jakin behar dugu enpresek zer eskatzen duten, haien beharrei erantzuteko. Oinarrizko hezkuntzaz gain, langileen trebakuntza indartzea hedatu nahi da".***

**Haritz Zubiete /** Brigadista
'Berriak' (2005/09/13)

## TELEBEGI/ Oihana Elortza

### *Ez?*

**Badut lankide bat telebistarik ez duena etxean. Ez du inoiz izan eta ez daki inoiz izango duen ere. "Ez?", erantzun nion hori guztia kontatu zidanean. Harritu egin ninduen. Ordura arte nire inguruan ez zegoen inor inoiz telebistarik etxean izan ez duenik. Nik badut, baina gero eta gutxiago ikusten dut. Egun askotan piztu ere ez dut egiten, batzuetan beste zeregin batek interes gehiago duelako eta beste askotan etxean ere egoten ez naizelako. Gainera, denek diote ez dagoela ezer ikusteko, ezta?**

**Lantokira etortzen naizenean konturatzen naiz zein telebista gutxi ikusten dudan, eta orain nire buruaz ere harritzen naiz. Lehen askoz gehiago ikusten nuen. Oraindik, dena dela, lehen bezala irakurtzen ditut egunkariek telebistari eskaintzen dioten orri gehienak. Interneten ere sartzen naiz telebistan gertatu diren aldaketen berri jakiten, baina egia esan, jadanik ez dut telebista programazioa irakurtzen gauean zein telesail edo pelikula bota behar duten jakiteko. Telebista ala ni aldatu naiz?**

AEK, Euskararako zeure garraiobidea

EGA

ni ere bai!

TV

Helmuga Euskara!

Sinbologia:

Freskatu zeure euskara
Egon zaitez eroso
EGA, hizkuntz eskakizunak
Euskal Herria euskalduntzen
Ikasgu hornituak
Banakako irakaskuntza
Metodologia komunikatiboa
Ikasgu homologatuak

Gorde zeure eserlekua!

EUSKARA IKASTAROAK
2005-2006

• Maila guztiak
• Perfilak eta EGA
• Mintzapraktika eta alfabetatze

Matrikula epea: irailaren 1etik 27ra.

aek

Informazio eta matrikula:

ERDU AEK EUSKALTEGIA
Garibai 14, 3. ARRASATE.
Tel.: 943 77 03 69
arrasate@aeknet.net

AKULU AEK EUSKALTEGIA
Masterreka 13, behea. BERGARA
Tel.: 943 76 05 18
bergara@aeknet.net

OTEHITZARI
BIRAKA

Kukai Tanttaka

ANTZERKIA - DANTZA

**Non:**
Arrasateko Amaia Antzokian.

**Noiz:**
Irailaren 18an, domeka, 20:00etan.

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Goienkaria ©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
Egoitza nagusia: BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Ordezkaritzak: Arrasate 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: arrasatepress@goiena.com
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxa • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: aretxagazeta@goiena.com
Publizitatea: Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: publi@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 18.935 ale • Difusioa: 17.680 ale.
HARPIDETZA: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

EGUBAKOITZA, 2005eko irailaren 16a

## *Atzeskua*

OIHANA ELORTZA

# Anjel Fernandez/ Bordatzailea

**Zer bordatzen duzu?**
Denetarik: txapelak, nikiak, polarrak eta biserak, besteak beste.

**Denak berdin?**
Oihal mota guztiak dira ezberdinak eta kontuan izan behar da hori lanean hasteko orduan. Bestetik, txapelak, adibidez, traketsagoak dira duten forma berezi horregatik; bordatua egin behar den tela lisoa bada, errazago egiten da lana.

**Nolako makina erabiltzen duzu bordatzeko?**
Duela hiru hilabete erosi nuen, japoniarra da. Lehendabizi ordenagailuan egiten dut bordatu beharreko irudia; hala, ze bordatu behar duen eta zein kolore erabili behar dituen esaten diot ordenagailuko programari. Programa hori diskete baten grabatu eta bordatzeko makinan sartzen dut.

**Eta makinak egiten du bordatua, automatikoki?**
Bai. Oihala jarri, bordatzen nondik hasi gura duzun esan makinari, eta listo.

**Zenbat denbora behar izaten du lana bukatzeko?**
Irudiaren arabera da hori. Irudia orratz puntadetan zatitzen du makinak. Batek 300 puntada izan ditzake eta beste batek, berriz, 15.000. Hala ere, armarri txiki bat bordatzeko, adibidez, bospasei minutu behar ditu makinak, azkar egiten du lana.

**Zenbat koloretako bordatua egin dezake?**
Nahi dituzun bestekoa. Makinak berak 15 kolore ditu. Hala ere, gehiago behar izanez gero, kolore batekin amaitzen denean beste kolore bateko harila jartzen da haren tokian eta lanean jarraitzen du makinak.

**Nork egiten dizkizu enkarguak?**
Kirol elkarteek, elkarte gastronomikoek, dantza taldeek, ikastetxeek eta baita banakoek ere.

**Zein izaten da eskari nagusia?**
Txapelak, adibidez, asko bordatzen ditugu: lasterketa, mus eta dantza txapelketetarako, besteak beste. Hala ere, arropan egiten ditut bordatu gehienak, txapeletan baino gehiago, agian. Orain, adibidez, ia 300 polo bordatu behar ditut elkarte gastronomiko baterako.

**Garestia da?**
Asko egiten badituzu merkeagoa izaten da beti.

**Zenbat balio du txapel bat bordatzeak, adibidez?**
Letrak bakarrik bordatu behar badira, 45 bat euro, gutxi gorabehera, txapel eta guzti. Armarria edo beste irudiren bat baldin badu, gehiago izaten da.

**Oihal handietan ere egiten dituzu bordatuak?**
Bai, zabalera handiko oihalak hartzen ditu makinak.

**Trofeoak ere egiten dituzu, ezta?**
Fresatzeko makina ere badut eta nahi den testua inprimatzen dut plaka txikietan, gero trofeoan jartzeko.

**Bukatu da eskuz bordatzen zuten garaia?**
Oraindik ere badaude eskuz egiten dutenak, baina makinak denbora luzea aurrezten du eta kalitate ona dute bordatu horiek ere.




**“Arropak ere asko bordatzen ditut; orain, ia 300 polo ditut bordatzeko elkarte gastronomiko batendako”**

**“Txapela bordatzea 45 bat euro kostatzen da, irudiaren arabera”**

► *Arrasate / 47 urte*

## PIPERRAUTSA

### *Arantzazu*

Inauguratu berri dute Gandiaga topagunea, Arantzazuko seminarioaren zimentarrien gainean. Udan egin nion bisita eraikinari eta, artean itxia zegoen arren, kanpotik ikusi nuena gustatu egin zitzaidan.

Itxura modernoa du, ondo egokitzen zaie basilikaren estiloari eta inguruneari. Eta badirudi erosoak izango direla beheko harrera-gunea, igoerak, ibilbideak eta terrazak, hau da, urbanizazio osoa.

Ezin dut barrukoari buruz ezer esan, baina imajinatzen dut pare samarrean etorriko dela kanpokoarekin. Estetikan ere, egoki ikusi nuen aukeratutako sotiltasuna: harria, hormigoia eta altzairu herdoildua.

Gu denon diruaz egin denez, pozik utzi ninduen bisitak. Majo kostatuko zen, baina ekipamendu garrantzitsua irabazi du ibarrak. Orain galdera: zertarako?

Hau da, nola aterako zaio etekina eraikin berriari? Nor arduratuko da kudeaketaz? Nola erakarriko ditu ekimen jendetsuak, hiriburuetatik hain aparte eta mendi artean galdurik dagoen parajeraino? Zein izan da asmoa, Gandiaga topagunea egiterakoan?

Ez dadin behintzat gerta, urtean lau aldiz bakarrik erabiltzen dela eta ekitaldi arruntetarako. Ibarrak ez ditu azpiegiturak soberan, dauden apurrak gutxi erabiltzeko.

Horregatik, arduradunei opa diet ausardia eta abilezia, ondo sal ditzaten eraikin bikaina eta paraje ederra, autobide azkarra eta ibar ezezaguna bezain interesgarria.

MIKEL IRIZAR
www.goiena.net/blogak/piperrautsa



Merkatuko lehen markak
Mota askotako estiloak
Gremioen koordinazioa

PROIEKTUA - DEKORAZIOA
Ipar project, s.l.
SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKA

Telleria 23, D5 pabilioia.
Labegaraieta Industrialdea BERGARA.
Tel.: 943 76 98 30. Faxa: 943 76 52 44.



